La respuesta que se ha dado a una forma pacífica de plantear unas reivindicaciones no se corresponde con un modelo de convivencia, sino con la imagen de una ciudad que no quiere utilizar el diálogo como medio de solucionar los conflictos. Y, precisamente, sobre el diálogo y la interlocución interpelamos al Gobierno Municipal, con la intención de saber más sobre sus decisiones y mandatos, puesto que las órdenes que dio fueron las que provocaron la situación que se dio el 7 de junio. Por otro lado, la interpelación también tenía como objetivo tratar sobre el modelo de la Guardia Municipal, ya que esta cuestión se encuentra estrechamente unida a la situación expuesta más arriba “¿Cree el Gobierno

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Gobernuak ez zuen ereduaz hitz egin nahi izan, interpelazioa horri zegokiola zalantzan jarrita ere.

Municipal que este tipo de hechos ayudan a conseguir un modelo de Guardia Municipal basado en la proximidad?" Aunque la pregunta fue clara, el Gobierno Municipal no quiso hablar sobre el modelo de Guardia Municipal, poniendo incluso en duda que la interpelación se refiriera a esta cuestión.

Udaltzainak herritarrengandik gertu aritzen diren udal langileak izanik, gertutasun hori indargune duen ereduan sakontzea ezinbestekoa da, egunerokoa elkarrizketan eta tratu zuzenean eraikia. Eredu hori helburu eta gidari izatea Udal Gobernuari dagokio, bai Udaltzaingoaren egunerokoan aritzerakoan, bai berak erabakiak hartzerakoan eta aginduak ematerakoan. Hau guztia, gainera, 2016ko testuinguruan inoiz baino garrantzizkotzat jo daiteke zalantzarik gabe, Donostiak elkarbizitzaren eredu izan nahi badu.

Estando la Guardia Municipal compuesta por trabajadores y trabajadoras municipales cercanos a la ciudadanía, es imprescindible profundizar en el modelo que considera esa proximidad como fortaleza, proximidad que se construye sobre el diálogo diario y el trato directo. Corresponde al Gobierno Municipal que ese modelo sea objetivo y guía, tanto en lo que respecta a la labor diaria de la Guardia Municipal, como a la hora de tomar decisiones y dar órdenes. Además, todo ello puede considerarse sin duda más importante en el contexto de 2016, puesto que Donostia / San Sebastián pretende ser modelo de convivencia.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Horiek horrela, hauxe da aurkeztutako

Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA:

MOCIÓN DE CONTROL:

1.- 2016-Europako Kultura Hiriburutzaren testuinguruan, helburu nagusia elkarbizitza delarik, Donostiako Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, Udaltzaingoan sustatzeko herritarrekiko gertutasunean oinarrituko den eredua.

1.- En el contexto de la Capitalidad Cultural europea 2016, cuyo objetivo general es la convivencia, el Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a fomentar en la Guardia Municipal un modelo basado en la proximidad a la ciudadanía.

2.- Donostiako Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari hartzeko jarduketa-protokoloa, proportzionaltasunaren printzipioak eta bildutako inguruabarrekiko egokitasunaren printzipioak gidatua eta zuzendua, herritarrekiko gertutasunean oinarritutako

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que adopte un protocolo de actuación, guiado y regido por el principio de proporcionalidad y adecuación a las circunstancias concurrentes, en el marco de un modelo de proximidad a la

ereduaren baitan.

Donostian, 2016ko ekainaren 24an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

ciudadanía.

Donostia / San Sebastián, 24 de junio 2016

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH BILDU".

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Loïc Alejandro jaunak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak, Alkate-Udalburuak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D. Loïc Alejandro, D. Ernesto Gasco Gonzalo, Alcalde-Presidente y D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

---------------

**II.2.22. Kontrol mozioa, Txofreko aparkalekuaren emakida legez kontra "luzatzea" dela-eta EH Bildu taldeak aurkeztua.**

"EH BILDU taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrék, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, Udalbatzan azter dadin, Txofreko aparkalekuaren emakidaren legez kontrako "luzapena" edo aparkalekua ustiatzeko emakidak indarrean jarraitzea onartzeko Gobernu Batzarraren

**II.2.22. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la "prórroga" ilegal de la concesión del aparcamiento del Txofre.**

"Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno, sobre la "prórroga" ilegal de la concesión del aparcamiento del Txofre o la aprobación por Junta de Gobierno del acuerdo por el que se aprueba la

erabakia dela eta. Mozioa batzordean, ekainaren 20an, bideratutako interpelazioaren ondorio da.

"continuidad" en la gestión del citado aparcamiento. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en comisión el pasado 20 de junio.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Gobernu Batzarrak, 2016ko otsailaren 16an, gai-zerrendatik kanpo, puntu hau onartu zuen: "Bi aldeak ados jarrita, onartzea Txofre plazako lurpeko aparkalekua ustiatzeko emakidak indarrean jarraitzea, 2016ko otsailaren 20an hasi eta 2016ko abuztuaren 20tik 2017ko otsailaren 20ra bitartean bukatuko litzatekeen epe batez".

La Junta de Gobierno del pasado 16 de febrero de 2016 aprobó, fuera del orden del día, el siguiente punto: "Aprobar de mutuo acuerdo la continuidad durante el período que comenzaría el 20 de febrero de 2016 y terminaría entre el 20 de agosto de 2016 y el 20 de febrero de 2017, de la concesión referente a la explotación del estacionamiento subterráneo de la Plaza del Txofre".

Txofre plazako lurpeko aparkalekuaren emakida-kontratua, ordea, 2016ko otsailaren 19an amaitu zen eta ez zegoen aurreikusita data horretatik aurrera emakida-kontratuarekin segitzeko aukera.

Sin embargo, el contrato de concesión del estacionamiento subterráneo de la Plaza del Txofre expiró el pasado 19 de febrero de 2016, sin que estuviera contemplada la posibilidad de continuar con el mencionado contrato de concesión a partir de la citada fecha.

Horren berri, Gobernu Batzarrean eman zen, udaleko lege-zuzendariaren beraren irregulartasun-oharpenaren bidez. Hau zioen hitzez-hitz: "Baldintzen Orrietan ez dago jasota kontratuaren indarraldia luzatzeko aukera", eta hau ondorioztatzen zuen: "Zerbitzua kudeatzen jarraitzeko proposamenak Baldintzen Orrietan aurreikusi gabeko kontratuaren luzapena dakarrela berekin, eta, hortaz, kontratu arloan bete beharreko arauak urratu egiten dituela"

De tal circunstancia se dió cuenta a la Junta de Gobierno Local, mediante nota de irregularidad del propio director jurídico del Ayuntamiento en la que textualmente se dice: "El Pliego concesional no contempla la posibilidad de prorrogar la vigencia del contrato"; concluyendo que: "La propuesta de aprobar la continuidad en la gestión del servicio supone una prórroga contractual no prevista en el Pliego, por lo que se incumple la normativa vigente en materia de contratos".

Are gehiago, gaur gaurkoz, ez da erabaki aparkalekua zuzenean kudeatzen jarraitzea eta ez da lizitaziora atera dagokion lehiaketa, publizitatearekin eta lehiakortasunarekin, Txofre plazako aparkalekua kudeatzeko emakida.

Es más, a fecha actual, ni se ha decidido gestionar directamente el citado parking, ni se ha sacado a licitación el oportuno concurso, con publicidad y concurrencia, para la concesión de la gestión del aparcamiento de la Plaza del Txofre.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Era berean, faltan botatzen dugu, emakidaren unean eskaini ziren balditzak bete izanaren gaineko azterketa teknikoa.

Ogasuneko zinegotzi ordezkariari horri buruz interpelazioa egin eta gero, erabakiaren legez kontrakotasuna onartu zuen eta adierazi zuen aparkalekuaren ustiapena ez kudeatzeko, ezta sikiera ere modu iragankorrean, udal gobernuaren erabaki irmoa, eta aipatutako lehiaketa lizitaziora epe “administrazioko terminoetan” labur batean ateratzeko izapideak egiteko erabakia.

Horiek horrela, hau da EH BILDU taldeak aurkezten duen KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio eman ditzala beharrezko pausoak ebazteko, urtea amaitu baino lehen, behar diren gai guztiak Txofre plazako aparkalekuaren kudeaketa berriro ere legearen barruan egiteko.

2.- Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio ebaluatu dezala emakidadunak bete dituen Txofre plazako aparkalekua kudeatzeko baldintzak, bai lehiaketa irabazteko egin zuen eskaintzan eskaintzen zituen zerbitzuei (zeinetan ondorengo kudeatzailea subrogatu baitzen) dagokienez, bai emakida amaituta instalazioak Udalari itzultzeko baldintzei dagokienez.

Donostia, 2016ko ekainaren 24a.

Izpta: Ricardo Burutaran Ferré,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Asimismo, echamos de menos, un análisis técnico del cumplimiento de las condiciones ofertadas en el momento de la concesión.

Interpelado al respecto el concejal de Hacienda admitió la ilegalidad de la citada decisión, argumentando la decisión firme del Gobierno Municipal de no gestionar, ni siquiera de manera “transitoria”, la gestión del citado aparcamiento, y la resolución de los trámites para sacar a licitación el referido, en concurso, en un plazo “pronto en términos administrativos”.

Por todo ello el grupo municipal de EH BILDU presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a dar los pasos necesarios para resolver, antes de final de año, cuántas cuestiones sean necesarias para que la gestión del aparcamiento del Txofre vuelva a realizarse de manera legal.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a evaluar el cumplimiento por el concesionario de las condiciones de gestión del aparcamiento del Txofre, tanto en lo relativo a la relación de servicios ofrecidos por el que resultó ganador del concurso en su oferta (en los que se subrogó el posterior gestor); como en las condiciones en las que debería revertir al Ayuntamiento las instalaciones una vez finalizada la misma.

En Donostia a 24 de Junio de 2016.

Sin: Ricardo Burutaran Ferré
Concejal del Grupo Municipal de EH BILDU”.

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Ricardo Burutarán Ferré y D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**

---------------

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**II.2.23. Kontrol mozioa, Belartza II eremuko harrobiko lanak, lur botatze eta metatzeak zein pista irekitzeak direla-eta EH Bildu taldeak aurkeztua.**

“EH BILDU taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrék, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, Udalbatzan azter dadin, harrobiko obrak eta Belartza II eremuko lur botatze eta metatzeak zein pista irekitzeak direla eta. Mozioa batzordean, ekainaren 20an, bideratutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Añorgatik zein ingurumena babestearen aldeko elkarteetatik behin eta berriro salatzen ari dira harrobiko lanetan egiten ari diren lege

**II.2.23. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre las obras en cantera y el vertido y depósito de tierras, con apertura de pistas, en Belartza II.**

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno sobre obras en Cantera y el vertido y depósito de tierras, con apertura de pistas, en Belartza II. La moción es consecuencia de la Interpelación sustanciada en comisión el pasado 20 de junio.

JUSTIFICACIÓN

Distintas, y reiteradas han sido las denuncias que están formulando tanto desde el barrio de Añorga, como desde asociaciones

urratzeak. Nabarmentzekoa da, beste batzuen artean, apirilaren 26an udaletxean aurkeztutako idazkia, 199-8802 erregistro zenbakia duena. Idazki horretan informazioa eskatzen zuten jakiteko Belartza II-n egiten ari diren obra batzuek ba ote zituzten nahitaezko lege baimenak; zehazki, ibilgailu astunak tunelaren irteeratik lurra pilatzen ari diren tokira joateko ireki eta egin duten hiru metro zabal baino gehiagoko pista irekitzeko, URAren baimenik baden, inguru hartan dagoen errekastoari eragiten baitio.

medioambientalistas en relación a distintas ilegalidades que se están produciendo en las obras de Cantera. De entre las mismas, cabe mencionar, que el pasado 26 de abril se presentó un escrito en el Ayuntamiento (Reg. 199-8802) por el que se solicitaba ser informados sobre si determinadas obras que se estaban realizando en Belartza II tenían las preceptivas autorizaciones legales; más concretamente la apertura y creación de una pista de más de 3 metros de ancho para el tránsito de vehículos pesados desde la salida del túnel hasta el lugar donde se está produciendo el acopio de tierras, si existe autorización de URA en tanto en cuanto afecta a un arroyo existente.

Lurzoruaren legeak pistak irekitzeko lizentzia behar dela ezartzen badu ere, eta lizentzia eskatu ez den arren, ezta eman ere, ez da espedienterik abiarazi lege urratze horrengatik, argudiatuta “behin-behineko metatze lanen barruan zegoela” eta “era horretara, eragina txikiagoa izatea lortzen zela”. Alabaina, materiala pilatzeko lizentziarik gabe aritzeagatiko espedientea ez da bi arrazoi horiengatik ireki, eta logikoa ere ez da, justifikatzeko, jardueraren “ingurumen eragin txikiagoa” bilatu dela esatea, onartutako plan partzialean aurreikusi gabeko jarduera bat denean, behin-behinekoa, eta sustatzaile pribatuari kostuak aurrezteko xede bakarrarekin egina. Ezin dugu ahaztu, halaber, pista horietako batek Irubide errekari eragin ziola, zati batean bederen.

A pesar de que la Ley del Suelo dispone la necesidad de obtener licencia para la apertura de pistas; y de que la misma ni se ha solicitado, ni se ha concedido, no se ha abierto ningún expediente por la infracción de la citada obligación bajo el argumento “de que estaba dentro de las obras de depósito provisional” y de que “con ello se conseguía una afección menor”; sin embargo, ni el expediente por obras sin licencia de depósito de material se abre por ambos motivos, ni es lógico buscar una pretendida justificación “de menor incidencia medioambiental” de una actuación, no prevista en el Plan Parcial aprobado, provisional y hecha exclusivamente al objeto de proporcionar ahorros de costos a la promoción privada. Tampoco podemos olvidar que, al menos parcialmente, una de las referidas pistas afectó al arroyo de Irubide.

Beste alde batetik, berriro gogorarazi behar da, oraindik erantzuteke dagoela Belartza IIko behin-behineko lur metatzea “baimentzeko” emandako lizentziaren aurka jarritako berraztertzeko errekurtsoa.

Por otra parte, es preciso volver a recordar, que todavía está pendiente de constestación el recurso de reposición contra la licencia otorgada para “autorizar” el depósito de tierras provisional realizado en Belartza II.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Era berean, izan diren agerraldietan, ez da azaldu zer dela eta behin betikotzat ematen ari den lurrak aldi baterako pilatzeko lizentzia batean oinarritutako material pilaketa, ez eta Udalak zer neurri hartuko dituen ere, pilaketa hori kentzera behartzeko.

Asimismo en las comparecencias efectuadas, tampoco se ha explicado las razones por las que se está dando por definitivo un depósito de material concedido en base a una licencia para depósito provisional, ni las medidas que se van a imponer por el Ayuntamiento para exigir la retirada del citado depósito.

Horiek horrela, hau da EH BILDU taldeak aurkezten duen KONTROL MOZIOA:

Por todo ello, el grupo municipal de EH BILDU presenta la siguiente MOIÓN DE CONTROL

1.- Donostiako Udalbatzak Gobernu taldeari eskatzen dio ebatz dezala, zuzenbidearekin bat, harrobiko obretatik ateratako materiala Belartza II eremuan aldi baterako metatzea baimentzeko emandako lizentziaren aurka aurkeztutako berraztertzeko errekurtsoa.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a resolver, conforme a derecho, el recurso de reposición presentado contra la licencia concedida por la que se autoriza un depósito provisonal de material, procedente de las obras de Cantera, en Belartza II.

2.- Donostiako Udalbatzak Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariari eskatzen dio espresuki ebatz ditzala salatzaileek planteatutako gai guztiak (pista irekitzeak, harri txikitzeak… Belartza II eremuan) eta eman dezala dagokion errekurtso oina.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al concejal delegado de Urbanismo Sostenible a que resuelva expresamente sobre todas las cuestiones planteadas por las personas denunciantes (apertura de pistas, trabajos de machaque de áridos en Belartza II,...), dando el oportuno pie de recurso.

3.- Donostiako Udalbatzak Gobernu taldeari eskatzen dio har ditzala behar diren neurriak pilatutako materiala benetan kenduko dela bermatzeko.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a que adopte las medidas que resulten precisas para asegurar la retirada efectiva del material depositado.

Donostia, 2016ko ekainaren 24a.

En Donostia, a 24 de Junio de 2016.

Izpta.: Ricardo Burutaran Ferré,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Fdo.: Ricardo Burutaran Ferré,
Concejal del Grupo Municipal EH BILDU".

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Loïc Alejandro jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Ricardo Burutarán Ferré, D. Loïc Alejadro y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

---------------

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**II.2.24. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Bretxan kiroldegi ezaren ingurukoa.**

“Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, Bretxako kiroldegi eza dela-eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2016ko ekainaren 20ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko Udal Gobernuak, urteetako lanaren ondoren, eta oztopo politiko guztiak gaindituz, Bretxako Arraindegi eraikuntzaren erabilera berreskuratu zuen. Argi dago Erdialdeak eta Parte Zaharrak zerbitzu publikoen beharra dutela, eta lur sail egokirik ez dagoela inguruan. Hori dela eta, anbulategiaren birkokapena lehentasun osoa izan da, eta

**II.2.24. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre la carencia de polideportivo en la Brecha.**

“Josu Mirena Ruiz, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en pleno, consecuencia de la interpelación substanciada ante la Comisión de Servicios para la Personas, celebrada el pasado 20 de junio, sobre la falta de un polideportivo en la Bretxa.

JUSTIFICACIÓN

El anterior Gobierno Municipal, tras varios años de trabajo y superando un gran número de obstáculos políticos, recuperó el uso del edificio Pescadería de La Bretxa. Está claro que el Centro y la Parte Vieja necesitan de servicios públicos y que, en ese entorno, no hay parcelas adecuadas para ello. Por ese motivo, se ha dado prioridad a la reubicación del

auzotarren beste beharrak asetzeko ere lan egin da.

ambulatorio y también se ha trabajado por satisfacer otras necesidades del vecindario.

Besteak beste, Kirol Patronatuak egindako txostenean kiroldegi berri bat eraikitzea landu zuen; kontuan hartuta Udalak eremu horretan zerbitzurik ez duela eskaintzen, auzotarren adina, eta kirol txartelen kopurua, auzoen artean, baxuena dela. Aurreko Udal Gobernuak egindako aurreproiektuan kiroldegiak azken solairua hartuko zuen osorik eta kirol pista, gelak, gimnasioa, aldagelak eta abar izango zituen.

En este sentido, y además de otros ejemplos, un informe del Patronato de Deportes estudió la posibilidad de construir un polideportivo, teniendo en cuenta que el Ayuntamiento no ofrece ningún servicio de este tipo en esta zona, que la edad de los vecinos y vecinas es relevante en este sentido y que se trata del barrio con menor número de kirol txartelas. En el anteproyecto realizado por el anterior Gobierno Municipal, el polideportivo iba a ocupar la última planta en su totalidad y contaría con pistas deportivas, salas, gimnasio, vestuarios, etc.

Baina alkateak Bretxarako aurkeztutako asmoan, gure amets-gaiztoak egi bihurtu dira: auzotarrek ez dute benetako kiroldegirik izango. Hau ikusita, Udal Gobernuak Udalbatzan auzoko eragileekin kirol programa tartekatzearen kontra bozka ematea ulertzen dugu. Udal Gobernu honek ez baititu bere asmoak edota gogoetak eragileekin konpartitzen. Auzoan haserrea begien bistakoa da, kiroldegi bat izateko aukera galduko baitute, nahiz eta Udalak baliabideak eta auzoak beharrak izan.

Pero, en el momento en el que el alcalde ha presentado sus intenciones respecto a la Bretxa, nuestras pesadillas se han convertido en realidad: el vecindario no contará con un verdadero polideportivo. Visto lo visto, entendemos por qué el Gobierno Municipal votó en el Pleno en contra de contrastar el programa deportivo con los y las agentes del barrio. Y es que este Gobierno Municipal no comparte sus ideas ni sus intenciones con los y las agentes sociales. El enfado que existe en el barrio es evidente y comprensible, puesto que ha perdido la posibilidad de tener un polideportivo, a pesar de que el Ayuntamiento contaba con los recursos necesarios y el barrio tenía unas necesidades que satisfacer.

Zinegotzi ordezkariak, batzordean, kirol instalazioa kirol pista izango zela esan zuen. Gure ustez, kiroldegi batek gimnasioa, kirol anitzerako gelak eta taldeentzako eta erabiltzaileentzako aldagelak ere izan behar ditu. Ibabe jaunak, “kiroldegi” hitzaren esanahia argitu nahian, batzuek igerilekua dutela aipatu zuen, baina Donostiako kiroldegi

El concejal delegado manifestó en comisión que la citada instalación deportiva consistiría en una pista deportiva. Sin embargo, nosotros consideramos que un polideportivo tiene que contar también con gimnasio, salas multideportivas y vestuarios para personas usuarias y clubes. El señor Ibabe, intentando aclarar el significado del término

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

xumeetan, igerileku gabekoetan, aipatutako zerbitzuak eskaintzen dira gutxienez. Kirol pista Orixe ikastolarentzat eta kirol taldeentzat garrantzitsua izango da, baina gainerako herritarrek, instalazio berriak gimnasiorik eta kirol anitzerako gelarik (kirol ekintzak, 65+, kurtsoak emateko) ez badu, ez dute erabiliko. Beraz, instalazioa hankamotz jaioko da. Denontzako kiroldegi berria egiteko aukera dugu, ordea.

Hori dela eta, behean sinatzen duen zinegotziak kontrol mozio hau aurkezten du.

MOZIOA

1- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Bretxako Arrandegi eraikinean lehen aipatutako zerbitzuak bermatuko dituen kiroldegi berria egin dezan.

Donostian 2016eko ekainaren 24an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

"polideportivo”, señaló que algunos de ellos cuentan con piscina. Aún así, incluso en los polideportivos más humildes de Donostia, aquellos que no cuentan con piscina, se ofrecen, por lo menos, los servicios que hemos citado anteriormente. No cabe duda de que una pista deportiva será muy importante para la Ikastola Orixe y para los clubes, pero, si la nueva instalación no cuenta con gimnasio y salas multideportivas (kirol ekintzak, 65+, cursillos), el resto de personas usuarias no la utilizarán. En consecuencia, esta instalación nacerá coja. No obstante, tenemos la oportunidad de que el nuevo polideportivo sea un polideportivo para toda la ciudadanía.

Es por ello que el concejal que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

MOCIÓN

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia insta al Gobierno Municipal a que garantice que el nuevo polideportivo a instalar en el edificio de la Pescadería de la Bretxa cuente con los servicios citados anteriormente.

En Donostia, a 24 de junio de 2016

Josu Mirena Ruiz Martín,
concejal del grupo municipal EH Bildu.”.

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Amaia Martin Garin andreak, Alkate-Udalburuak, Miren Albistur Garmendia andreak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Josu Ruiz Martín, Dª. Amaia Martín Garín, Alcalde-Presidente, Dª. Miren Albistur Garmendia y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

---------------

**II.2.25. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, EAEn kongresu banaketaren ingurukoa.**

“Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, EAEn kongresu banaketari buruzko MOZIO hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozio hau Pertsonetako Batzordean 2016ko ekainaren 20ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Denok dakigu kongresuek gure hirian garrantzi handia dutela, bai ekonomikoki bai hiri posizionamendu modura, turismo zuzendari plangintzan (2012-2016) adierazten den bezala. Hau oinarri hartuta, Donostiako Estrategia Bulegoa, aurreko legegintzaldian, Euskal Autonomia Erkidegoan kongresuen bilakaera aztertzen hasi zen. Lehenengo lanean, 2012an, Eusko Jaurlaritzak Bilbo aldeko apustua egiten zuela nahiko argi geratu zen. Hori dela-eta, eta datuen lorpena benetan zaila dela kontutan harturik, ikerketa berri bat martxan jarri zen; oraingo honetan, 2013-2014 urteak elkarrekin aztertuz.

**II.2.25. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre la distribución de congresos en la CAV.**

“Josu Mirena Ruiz Martin, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN, relativa a la distribución de congresos en la CAV, para que sea analizada en el Pleno. Esta moción tare causa de la interpelación sustanciada ante la Comisión de Servicios a las Personas el 20 de junio de 2016.

JUSTIFICACIÓN

Todas y todos sabemos que los congresos son muy importantes para nuestra ciudad, por un lado, desde el punto de vista económico y, por otro, como forma de posicionamiento de la ciudad, tal como recoge el Plan Director de Turismo (2012-2016). Partiendo de esta base, en la legislatura anterior, la Oficina de Estrategia de San Sebastián comenzó a analizar la evolución de los congresos celebrados en la Comunidad Autónoma Vasca. Su primer trabajo, realizado en 2012, dejó bastante claro que el Gobierno Vasco apostaba por Bilbao. Posteriormente, y teniendo en cuenta que obtener datos sobre esta cuestión

es ciertamente difícil, se puso en marcha una nueva investigación, relativa al período 2013-2014.

Gai honetaz, bere garaian, zinegotzi ordezkariaren iritzia jasotzeko, agerraldia eskatu genuen. Handik aurrera, gaiari helduz, Udalbatzak aho batez mozio arrunt bat onartu zuen, eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek, ildo beretik, beste bat onartu dute; hori bai, EAJren kontrako bozkarekin. Azkenean, Eusko Jaurlaritzak, hiriburu eta lurralde guztiak, parte hartzen duen kongresuetan, era berean tratatzea eskatzen ari da. Baina lanketa hau luzea da, argudio garrantzitsuak behar ditugu eta horretarako, eguneratutako informazioa behar dugu, orain arte izan dugun bezala. Ez da, ordea, inongo pausorik eman legegintzaldi honetan.

En su día, solicitamos la comparecencia del concejal delegado, para conocer su opinión sobre el tema. Más adelante, el Pleno aprobó por unanimidad una moción ordinaria y las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado otra, en el mismo sentido. Eso sí, con el voto en contra del PNV. Finalmente, el Gobierno Vasco, en los congresos en que toma parte, está pidiendo que todas las capitales y territorios sean tratados de igual forma. Pero esta es una tarea larga y, para llevarla a cabo, necesitamos argumentos sólidos y, a su vez, para obtenerlos, necesitamos información actualizada, como ha ocurrido hasta ahora. Sin embargo, en esta legislatura, no se ha dado un solo paso en este sentido.

Batzordean, ordezkariak bat egin zuen 2015-2016 urteetako kongresuen bilakaera txostena egin beharrarekin. Bestalde, talde honek, bere garaian, proposatutako komisioak -gure hiriaren lehiakortasuna hobetu zedin- gobernu talderen ezetza jaso zuen eta ez da gauzatu. Ernesto Gasco jaunak, hala ere, Sustapeneko batzorde bat eratzea aurreikusi du eta Convention Bureau partaide balitz, aukera ona litzateke, baina oraindik ez da eratu.

En comisión, la Concejalía Delegada coincidió con la necesidad de realizar un informe sobre la evolución de los congresos a lo largo de 2015 y 2016. Por otro lado, este grupo, en su día, propuso una comisión —para mejorar la competitividad de nuestra ciudad—, que recibió el voto en contra del grupo de Gobierno y no se constituyó. El señor Ernesto Gasco, aún así, ha previsto la creación de una comisión de fomento, y si en ella participara Convention Bureau, sería una buena oportunidad, pero todavía no se ha constituido.

Hori dela-eta, behean sinatzen duen zinegotziak KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

Es por ello por lo que el concejal que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

MOZIOA

MOCIÓN

1- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio EAEn kongresuen

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que ponga en

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

banaketari buruzko txostena (2015-16) lehenbailehen abiaraz dezala, haien bilakaeraren berri izan dezagun.

marcha cuanto antes el informe sobre la distribución de congresos en la CAV en 2015 y en 2016, para que tengamos conocimiento cuanto antes de la evolución.

2-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio Sustapenaren eta Donostia Turismoko Convention Bureau-ren artean batzorde bat era dadila, kongresuak antolatzeko esparruan lehiakortasuna hobe dezan gure hiriak.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que constituya una comisión con Fomento, Donostia Turismo y Convention Bureau, para que nuestra ciudad optimice la competitividad en el ámbito de la organización de congresos.

Donostian, 2016eko ekainaren 24an

En San Sebastián, a 24 de junio de 2016

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Josu Mirena Ruiz Martin,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Josu Ruiz Martín, D. José María Murguiondo Casal, D. Ernesto Gasco Gonzalo y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**5. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**5. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**

**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

---------------

**ATSEDENALDIA**

**14:25EAN, ATSEDENALDIA EGITEN DA ETA BERRIRO ERE EKITEN ZAIO SAIOARI, 15:30AK DIRENEAN.**

**RECESO**

**SIENDO LAS 14:25H, SE REALIZA UN RECESO Y SE REANUDA LA SESIÓN, CUANDO SON LAS 15:30H.**

---------------

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**II.2.26. Kontrol mozioa, EH BILDU eta IRABAZI DONOSTIA taldeek batera aurkeztua, dBUS Administrazio Kontseilua dela eta.**

“Amaia Martin Garin IRABAZI Donostiako bozeramaileak eta Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten dute, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko ekainaren 20an Gune Publikoko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016eko maiatzaren 11n, Donostiako Tranbia Konpainian gauzatu zen Administrazio Kontseiluan, bederatzi puntu izan genituen hizpide. Ustez, eta eskumenak eskumen, Lehendakaritzatik Administrazio Kontseilura proposamenak eztabaidatzeko eta

**II.2.26. Moción de control conjunta, presentada por los Grupos EH BILDU e IRABAZI DONOSTIA, sobre el Consejo de Administración de dBUS.**

“Amaia Martin Garin, portavoz del grupo IRABAZI Donostia, y Axier Jaka Goikoetxea, concejal del grupo EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, tienen a bien presentar la siguiente moción, para su tratamiento en pleno, consecuencia de la interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público que se celebró el pasado 20 de junio de 2016.

JUSTIFICACIÓN

En la reunión del Consejo de Administración de la Compañía del Tranvía que tuvo lugar el pasado 11 de mayo se iban a tratar, en principio, nueve asuntos. Y decimos en principio porque, a pesar de que la Presidencia remite al Consejo propuestas para que sean

osagarritzeko eramaten diren arren, egun hartakoan ikusi ahal izan genuen Kontseilua espazio informatibo huts bilakatzen ari dela eta kontseilariok Lehendakaritzaren eta Zuzendaritzaren proposamen eta erabakiak entzutera joan behar dugula. Aitzitik, azkeneko bi legegintzaldietan, gutxienez, sozietateak bestelako funtzionamendua izan du: kontseilariek Zuzendaritzaren proposamenak eztabaidatu, osagarritu eta bozkatzeko aukera izan dute.

debatidas y, en su caso, complementadas, en la citada reunión pudimos ver que este consejo, independientemente de la competencias de cada cual, se está convirtiendo en un espacio meramente informativo y que las consejeras y consejeros somos simples oyentes de las propuestas y decisiones de la Presidencia y de la Dirección. Sin embargo, el funcionamiento que han tenido las sociedades municipales durante, al menos, las dos legislaturas anteriores ha sido totalmente diferente, ya que las consejeras y consejeros han podido debatir, complementar y votar las propuestas planteadas por la Dirección.

Maiatzeko bilkuran, ordea, 3. eta 4. puntuan kontseilariei proposamenak bozkatzeko aukera ukatu zitzaien, kontseilari batek baina gehiagok hori eskatu zuten arren. Horrez gain, 2. puntuan, interpelazio hau izenpetzen duen kontseilari bati, arbitrarioki, proposamen gehigarri bat proposatu eta bozkatzeko aukera ukatu zitzaion; hain zuzen, beste kontseilari bati horretarako aukera eman zitzaionean. Azkenik, Lehendakaritzaren aldetik, zenbait kontseilarik egindako galdera zuzenei ez erantzuteko jarrera nabarmendu zela iritzi dugu. Are larriago, ondorengo eguneko prentsan, errealitatea bestelakoa izan zen arren, irakurri ahal izan genuen Administrazio Kontseilua izan zela gai-zerrendako proposamen eta neurri guztiak erabaki zituena, benetan, Lehendakaritza izan zenean.

No obstante, en la citada reunión de mayo, se negó la posibilidad de que las consejeras y consejeros pudieran votar en los puntos 3º y 4º, a pesar de que varias consejeras y consejeros solicitaron hacerlo. Además, en el punto 2º, a una persona que forma parte de dicho consejo y firma la presente interpelación, se le negó, de manera totalmente arbitraria, la posibilidad de proponer y votar una propuesta suplementaria, cuando a otra persona que forma parte del mismo consejo sí que se le concedió dicha opción. Finalmente, consideramos que la Presidencia mantuvo una posición de no responder a las preguntas directas planteadas por determinadas personas del consejo. Y aún más grave fue que, a pesar de que la realidad fue totalmente diferente, en la prensa del día siguiente pudimos leer que fue el Consejo de Administración el que decidió todas las propuestas y medidas que figuraban en el orden del día, cuando, en realidad, fue la Presidencia la que tomó todas aquellas decisiones.

Interpelazio sinatzen dugun kontseilariok ez dugu uste dBusen Administrazio Kontseiluaren funtzionamendua hau izan behar denik, ez

Las personas que firmamos la presente interpelación creemos que el funcionamiento del Consejo de Administración de dBus no

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

dBusen ez bestelako udal sektore publikoko sozietateetan, eta kontseilariok errespetua merezi dugula uste dugu.

tiene que ser el aquí descrito —ni el de dBus ni el de ninguna otra sociedad del sector público municipal— y que las personas que forman parte de estos consejos merecen ser respetadas.

Ekainaren 20ko kontrol batzordeetan, ordea, Udal-gobernuak ukatu egin zuen kontseilukideei euren posizioa espresatzea ezeztatu zitzaienik, baina jarraian adierazi zuen kontseilukideek ezin dituztela momentuko proposamenak egin, ez eta sozietateko Lehendakaritzako proposamenen inguruan bozkatu. Horretaz gain, adierazi zitzaigun Administrazio Kontseiluaren funtzionamenduaren inguruan erregelamenduak esaten duena egin behar dela. Egun berean, dBuseko Administrazio Kontseiluko erregelamendua eskatu genuen, baina gaur arte ez zaigu helarazi; jakin dugun arte erregelamendu hori ez dela existitzen.

En las comisiones de control realizadas el 20 de junio, sin embargo, el Gobierno Municipal negó que se hubiese impedido expresar su opinión a las personas que forman parte del citado consejo, pero, a renglón seguido, señaló que estas personas no pueden realizar propuestas en el momento, ni votar sobre las propuestas efectuadas por la Presidencia de la sociedad. Asimismo, se nos indicó que en relación con el funcionamiento del Consejo de Administración había que estar a lo establecido en su reglamento. Aquel mismo día solicitamos el citado Reglamento del Consejo de Administración de dBus, pero, hasta la fecha, no se nos ha remitido; hasta que hemos podido saber que dicho reglamento no existe.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

EH Bildu eta Irabazi taldeen iritziz, Udal-gobernuak batzordetan erantzundakoa aitzakiak baina ez dira maiatzaren 11ko jokaera justifikatzeko. Ez dugu uste udal sozietateetan jokamolde hertsi hauekin funtzionatu behar denik eta pentsatzen dugu kontseilukideen adierazteko, proposatzeko eta posizionatzeko eskubideak errespetatu behar direla. Adibidez, Etxegintza edo Sustapena bezalako sozietateen kontseiluetan egiten den moduan.

Para los grupos municipales de EH Bildu e Irabazi Donostia, las respuestas ofrecidas por el Gobierno Municipal en comisión no son más que meras excusas para justificar la postura mostrada el 11 de mayo. No creemos que en las sociedades municipales se deba funcionar con estas actitudes tan cerradas, y consideramos que se deben respetar los derechos de expresión, propuesta y posicionamiento de las personas que forman parte del consejo, tal y como se hace, por ejemplo, en los consejos de Etxegintza y Fomento.

Horiek horrela, hauxe da Irabazi Donostia eta EH Bildu taldeek aurkeztutako

Es por ello por lo que los grupos Irabazi Donostia y EH Bildu presentan la siguiente:

KONTROL MOZIOA:

MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udalgobernuari udal sozietateen kontseiluek, eta bereziki dBusekoak, gardentasun eta gobernu on printzipioen baitan funtzionatzea eta bermatu dezala kontseilukideen adierazteko, proposatzeko eta posizionatzeko eskubidea.

Donostian, 2016ko ekainaren 24a

Amaia Martin Garin
Irabazi Donostia udal taldeko bozeramailea

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

1.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que los consejos de las sociedades municipales, especialmente el de dBus, funcionen en base a los principios de transparencia y buen gobierno, y que garantice los derechos de expresión, propuesta y posicionamiento de las personas que forman parte de los citados consejos.

En Donostia, a 24 de junio de 2016

Amaia Martin Garin,
Portavoz del grupo municipal Irabazi Donostia

Axier Jaka Goikoetxea,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Pilar Arana Perez andreak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Amaia Martín Garín, D. Axier Jaka Goikoetxea, Dª. Pilar Arana Pérez y D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.27. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak egina, errekastoen inbentarioa dela eta.**

“Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko maiatzaren 16an Lurraldearen Garapen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Ikusita 2013ko Ibai eta Erreken Lurraldeko Zatikako Planak soilik udalerriko ibai eta erreka nagusiak jasotzen dituela, Udaleko Ingurumen Sailetik informazio gabezia hau asetzeko erreka txiki eta errekastoen inbentarioa egiteari ekin zitzaion aurreko legegintzaldian. Geroztik, lan tekniko zabala egiten dihardute ingurumen-teknikariek sare hidrografikoaren errekasto bakoitza inbentariatu, kartografiatu eta kalitate-balorazioa egiteko

Inbentario honen azken helburua, ezagutzaz gain, errekasto-sistema babestea litzateke. Bai uraren kalitatea eta errekastoak berak babesteko, bai bioaniztasun ikuspegitik, sistema hidrikoarekin lotutako habitat eta ekosistema baliotsuak babesteko. Hain zuzen, behar hori ezartzen dute Euskadiko Lurralde Antolaketarako Gidalerroek eta Ibai eta Erreken Zatikako planaren araudi orokorrak. Beharrezkoa baita babestea, erreka eta errekastoen uraren kalitatea kontserbatzeko, emari ekologikoa bermatzeko, uberken okupazioa ekiditeko eta ingurumen-interes bereziko tarteen ezaugarriak kontserbatzeko.

**II.2.27. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre el inventario de arroyos.**

“Axier Jaka Goikoetxea, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La moción trae causa de la interpelación presentada en la Comisión de Desarrollo del Territorio de 16 de mayo de 2016.

JUSTIFICACIÓN

A la vista de que el Plan Territorial Sectorial de Ordenación de los Ríos y Arroyos de 2013 únicamente recoge los ríos y arroyos principales del término municipal, en la anterior legislatura el Departamento Municipal de Medio Ambiente inició un inventario de ríos pequeños y arroyos, pata paliar esa carencia. Desde entonces, el personal técnico de medio ambiente está realizando una amplia labor para inventariar, cartografiar y realizar un valoración de calidad de cada arroyo de la res hidrográfica.

El objeto último de ese inventario, además del conocimiento, sería la protección del sistema de arroyos. Tanto para proteger la calidad del agua y los arroyos en sí, como desde el punto de vista de la biodiversidad, para proteger diversos hábitats u ecosistemas valiosos relacionados con el sistema hídrico. Concretamente, responden a esa necesidad las Directrices de Ordenación del Territorio y las reglamentaciones generales del Plan Territorial Sectorial de Ordenación de los Ríos y Arroyos. También resulta necesario, para conservar la calidad de ríos y arroyos, para garantizar el caudal ecológico, evitar la ocupación de los cursos fluviales y conservar

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

las características de los tramos de especial interés ambiental.

Belartza-gainan zehazki bi errekasto daude: Errekatxulo eta Irubide ibarrak. Maiatzaren 16ko kontrol batzordean Ingurumeneko ordezkaria interpelatuta, bi errekasto hauek inbentarioan jasoko direla adierazi zitzaigun eta, horrez gain, ordezkariak adierazi zuen Udal-gobernuaren konpromisoetako bat babes neurriak hartzea izango litzatekeela. Belartza II Plan Partzial eta urbanizazio proiektuan, ordea, bi errekasto hauen eraldaketa nabarmena jasotzen da: Irubide errotik desagerraraziz eta Errekatxulorentzat uberka berri bat ezarriz, ondorioz, morfologia originala ezabatuko delarik.

En el alto de Belartza, concretamente, hay dos arroyos: las vaguadas de Errekatxulo e Irubide. Interpelada al respecto la Concejalía Delegada de Medio Ambiente en la comisión de 16 de mayo, se nos manifestó que esos dos regatos se recogerán en el inventario y, además, la Concejalía Delegada expresó que uno de los compromisos den Gobierno municipal sería el de adoptar medidas de protección. Sin embargo, el Plan parcial de Berlartza II y el proyecto de urbanización recogen una notable modificación de estos dos arroyos: Irubide desaparecería totalmente y Errekatxulo tendrían un nuevo curso fluvial, con lo que, consecuentemente, se esfumaría la morfología original.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

Es por ello que el concejal que suscribe presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA:

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal-gobernuari udalerriko erreka eta errekastoen inbentario, kartografia eta balorazioa amaitu dezala.

1.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que finalice el inventario, la cartografía y la valoración de los ríos y arroyos del término municipal.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal-gobernuari inbentariotik abiatuta, udal-planeamenduaren bitartez babes azalerak ezarriaz, Donostiako sare-hidrografikoa babestu dezala, arau orokor gisa, uberka eta ibaiertzen okupazio eta eraldaketa ekiditeko.

2.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que, a partir del inventario, mediante el establecimiento por la planificación municipal de las superficies protegidas, resguarde la red hidrográfica, como norma general, para evitar la ocupación y transformación de los cursos y riberas fluviales.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal-gobernuari "AÑ.14 Belartza II" garapen urbanistikoa eten dezala bertako balore naturalak, Errekatxulo eta Irubide ibarrak

3.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que interrumpa el desarrollo urbanístico de AÑ.14 Berlatza II, para proteger conforme al ordenamiento legal los valores

barne, legediak ezartzen duen bezala babestu daitezen.

Donostian, 2016ko ekainaren 24a

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

naturales del ámbito, incluidos los arroyos Errekatxulo e Irubide.

En San Sebastián, a 24 de junio de 2016

Axier Jaka Goikoetxea,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak, Loïc Alejandro jaunak eta Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Axier Jaka Goikoetxea, D. Alfonso Gurpegui Ruiz, D. Loïc Alejandro y D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**27. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 27:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**27. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 27:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**27. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 27:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

---------------

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**II.2.28. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak egina, Ondarretako harriekin egindako kudeaketaren ingurukoa.**

“Olaia Duarte López EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko ekainaren 20ean Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

1998. urtetik, hainbat esku hartze egin ditu Donostiako Udalak Ondarretako hondartzan, harriak desagertarazteko. Esku-hartze horiek guztiek gastu ikarragia suposatu dute Udalarentzat eta, bistan dago, ez dira eraginkorrak izan, harriak behin eta berriro atera baitira.

Udalarekin hitzarmena izan eta mundu mailan erreferentea den Azti Tecnalia institutuak 2011eko uztailean egindako txosten teknikoan 2004. urtetik 2011era egin diren lanen

**II.2.28. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU relativa a la gestión respecto a las piedras de Ondarreta.**

“Olaia Duarte Lopez, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en pleno, consecuencia de la interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público que se celebró el pasado 20 de junio de 2016.

JUSTIFICACIÓN

Desde 1998, el Ayuntamiento ha llevado a cabo diversas intervenciones destinadas a la eliminación de las piedras de la playa de Ondarreta. Estas intervenciones han supuesto un gasto desorbitado para el Ayuntamiento, aunque a la vista está que no son muy eficientes, ya que las piedras han aflorado nuevamente.

Azti Tecnalia, un instituto de referencia mundial y con quien nuestro Ayuntamiento tiene firmado un convenio, realiza, en informe elaborado en julio de 2011, una síntesis y una valoración de

laburpena eta balorazioa egiten dira. Bertan aipatzen da urteetan egindako harri eta hondar mugimenduak ez direla egokiak izan eta hondartzaren egoera okertu dutela.

las intervenciones desarrolladas desde el año 2004 al 2011. En este informe, se indica que los movimientos de piedras y arena que se han llevado a cabo durante años no han sido realizados de manera correcta, y que la situación de la playa se ha visto agravada por ello.

Arazo honi irtenbide bat ematearren, Azti Tecnicaliako profesionalek 2012an iradokizun batzuk egin zizkioten Udal Gobernuari:

Asimismo, y con el fin de dar una solución a este problema, profesionales de Azti Tecnalia plantearon al Gobierno Municipal una serie de recomendaciones:

- alde batetik, aipatzen da Ondarreta eta Kontxako hondartzek sistema bakarra osatzen dutela eta, hortaz, hondartzetan interbentzioak egiten direnean bi eremuen dinamikan eragina izaten dutela;

- Por una parte, las playas de Ondarreta y La Concha conforman un único sistema y, por lo tanto, cuando se interviene en ellas, se incide en la dinámica de ambas zonas.

- bestetik, hare mugimenduak egiten badira, horrek badiako eremu osoan eragina izaten duela, sistema bakarra delako;

- Por otro lado, si se realizan movimientos de arena, estos inciden en el conjunto de la bahía, ya que ésta conforma un único sistema.

- interbentzio eraginkorrenak zeintzuk diren jakin ahal izateko, Ondarretan neurketa sistema batzuk eta kamerak jartzea gomendatu zuten, hondartzaren morfologia eta dinamika natural zein den ondo aztertzeko.

- Al objeto de conocer cuáles son las intervenciones más eficientes, recomendaron la implantación de unos sistemas de medición y la instalación de unas cámaras en Ondarreta, que permitan realizar un buen análisis de la morfología y la dinámica natural de la playa.

2012an Udal Gobernuak Aztiko teknikariek esandakoa egin zuen eta egindako neurketei esker hondartza hobeto ezagutzen dugu gaur egun. Aztik egindako azken txostenean, 2015eko ekainean, ondorioztatzen da Ondarretaren azpian 150.000 metro kubiko harri daudela eta hondartzaren oinarria osatzen dutela, harearekin batera. Harri hauez gain, badaude erretiratu beharreko kaskoteak, baina modu antolatuan eta makinaria handia erabili gabe.

Así, en 2012, el Gobierno Municipal hizo caso de las recomendaciones realizadas por el personal técnico de Azti, y gracias a dichas mediciones, hoy en día tenemos un mejor conocimiento de la playa. En el último informe elaborado por Azti en junio de 2015, se concluye que bajo la playa de Ondarreta hay 150.000 metros cúbicos de piedras, que conforman, junto con la arena, la base de la playa. Además de estas piedras, existen cascotes, que deben ser retirados, pero de una

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

manera ordenada y sin la utilización de maquinaria pesada.

Hau guztia jakinda, EAJ eta PSE-EEren Udal Gobernuak Ondarretan harriak atera zituen berriro ere 2015eko uztailean eta abuztuan, teknikarien txostenak eta iradokizunak kontuan izan gabe. Gainera, Udal Gobernuak prentsaren bidez jakinarazi zuen Ondarretan harri-lubeta bat (“escollera”) egitea eta Tenisetik irlarantz doan dikea metro eta erdi gorago jartzeko aukera aztertzen ari zela; interbentzio horrek badia osoaren dinamikan eragina izan lezakeela eta haren paisajea itsas-gorarekin aldaraz lezakeela kontuan hartu gabe.

El Gobierno Municipal del PNV y del PSE-EE, aun siendo conocedor de todo lo anteriormente citado, en julio y agosto de 2015 procedió nuevamente a la retirada de las piedras de Ondarreta, obviando así los informes y las recomendaciones realizadas por el personal técnico. Además de ello, el Gobierno Municipal ha dado a conocer, mediante la prensa, que está estudiando la posibilidad de realizar una escollera en Ondarreta y elevar metro y medio el dique que va desde el Tenis hacia la isla, sin tener en cuenta que estas intervenciones podrían incidir en la dinámica de toda la bahía y alterar su paisaje en pleamar.

Hau ikusita, 2015eko abuztuaren 4an, EH Bildu taldeak harriak ateratzeko Kosta Zuzendaritzak eman behar zuen baimenaren kopia eta operazioaren txosten teknikoa eskatu zuen. Nahiz eta, legez, 10 eguneko epea izan erantzuteko, Udal Gobernuak ez du urtebetean inongo dokumenturik helarazi. Berriki jakin dugu Udal Gobernuak Kosta Zuzendaritzaren baimenik gabe egin zituela harri jasoketa haiek. Argi geratu da, beraz, PNV eta PSOE donostiarrei datu hori ezkutatzen saiatu zirela iaz.

Ante esta situación, el 4 de de agosto 2015, el grupo municipal de EH Bildu de Donostia solicitó una copia del permiso de la Dirección de Costas para la retirada de piedras y el informe técnico de la operación. Sin embargo, y a pesar del plazo de 10 días establecido en la normativa para responder a nuestra petición, el Gobierno Municipal no ha remitido documentación alguna durante todo un año. Mientras tanto, recientemente hemos conocido que la citada retirada fue efectuada por el Gobierno Municipal sin contar con el permiso de Costas. Ha quedado claro, por tanto, que PNV y PSOE han intentado ocultar este dato a la ciudadanía donostiarra.

Bestalde, iraileko udalbatzan EH Bilduk kontrol mozioa aurkeztu zion Udal Gobernuari honako hau eskatuz:

Por otra parte, en sesión plenaria celebrada en septiembre, EH Bildu presentó una moción de control al Gobierno Municipal en la que le instaba a:

- Ondarretarekin lotutako txosten tekniko guztiak publiko egitea lehenbailehen.

- Hacer públicos todos los informes técnicos referentes a la playa de Ondarreta lo más rápidamente posible.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

- Azti Tecnicalia Institutuarekin duen lotura kontraktuala dela-eta, teknikoen gomendioak jarraitzea.

- Ondarretako eta badiako morfologia naturala eta paisajea errotik alda dezakeen proiekturik aurrera ez eramatea.

Udal Gobernuak ezezko botoa eman zion mozio honi eta harri jasoketak egiten jarraitu zuen, hiru aldiz gutxienez, teknikarien eta Kosta Zuzendaritzaren oniritzirik gabe.

Aurten, dagoeneko, uda hasi da eta Ondarretako egoerari buruzko kexak iristen hasi dira Udalera. Agerian geratu da, beraz, iazko udako harri jasoketen porrota.

Ekaineko batzordeetan, Miguel Angel Diez jauna interpelatu genuen eta erantzun zuen azterketa bat egiten ari direla hondartzan zer egin behar den jakiteko eta iazko harri jasoketak baimenik gabe egin zirela aitortu zuen -EH Bildu taldeak salatu zuen bezala-, eta Kosta Zuzendaritzatik abisu bat jaso dutela horregatik.

Bestalde, ordezkariak esan zuen Azti Teknikalia institutuarekin Udalak zuen hitzarmena bertan behera gelditu dela eta Aranzadi Zientzia Elkartea kontratatu dutela ikerketa bat egiteko. Aldi berean, Aranzadi elkarteak Valentziako Unibertsitate

- Teniendo en cuenta la relación contractual existente con el Instituto Azti Tecnicalia, se sigan las recomendaciones técnicas.

- No llevar adelante aquellos proyectos que puedan modificar la morfología natural y el paisaje de Ondarreta y el conjunto de la bahía.

El Gobierno Municipal, sin embargo, votó en contra de aquella moción y continuó realizando tareas de retirada de piedras en, al menos, tres ocasiones, sin contar para ello con el visto bueno del personal técnico y de la Dirección de Costas.

Este año, nada más empezar la temporada de verano, ya han comenzado a llegar las primeras quejas sobre la situación de la playa de Ondarreta al Ayuntamiento. Por tanto, es patente el fracaso de la retirada de piedras realizada el verano pasado.

En diversas comisiones celebradas en junio, interpelamos al delegado, Miguel Ángel Díez, a este respecto, quien nos respondió que estaban realizando un estudio para saber qué actuaciones desarrollar en la playa, que las retiradas de piedras realizadas el año anterior se habían realizado sin permiso —tal y como lo denunció el grupo EH Bildu— y que habían recibido una advertencia de la Dirección de Costas por ello.

Asimismo, añadió que el convenio suscrito con el Instituto Azti Teknikalia había sido suspendido y que habían realizado un contrato con la Sociedad de Ciencias Aranzadi para realizar un estudio, y que ésta, a su vez, había contratado con la Universidad Politécnica de

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Politeknikoa kontratatu omen du ikerketa egin dezan. Zinegotzi ordezkariak adierazi zuen ikerketa honen ondorioak Kosta Zuzendaritzan aurkeztu behar dituztela.

Valencia a fin de realizar el estudio. Finalmente, el citado concejal delegado indicó que los resultados de dicho estudio serán presentados a la Dirección de Costas.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

Por todo lo anteriormente expuesto, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari publiko egin ditzala Ondarretako egoeraren inguruan Aranzadik egindako ikerketa berriaren ondorioak.

1. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que haga públicos los resultados del estudio realizado por Aranzadi sobre la situación de la playa de Ondarreta.

2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Ondarretako hondartzan egiten dituen kudeaketak beharrezko baimenekin zein teknikarien oniritziarekin egin ditzala.

2. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que las gestiones relacionadas con la playa de Ondarreta sean realizadas contando con los permisos pertinentes y el visto bueno del personal técnico.

3. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Ondarretan ematen den egoeraren inguruko interbentzio plan integral bat egin dezala, epe luzera begira, hondartzaren morfologia eta ezaugarriak kontuan hartuta.

3. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que realice un plan integral, a largo plazo y teniendo en cuenta la morfología y las características de la playa, sobre las intervenciones relativas a la situación que se da en la playa de Ondarreta.

Donostian, 2016ko ekainaren 24an

En Donostia, a 24 de junio de 2016

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Loïc Alejandro jaunak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a Dª. Olaia Duarte López, D. Loïc Alejandro, D. José María Murguiondo Casal y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**28. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 28:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**28. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 28:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**28. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 28:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

---------------

## II.2

## BESTE KONTROL MOZIO BATZUK

**II.2.1. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, "turismo tasa" dela eta.**

## II.2

## OTRAS MOCIONES DE CONTROL

**II.2.1. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre la "tasa turística".**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

“Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martinek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, ondorengo KONTROL MOZIOA aurkezten du, uztailaren 11n OGASUN BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondoriotzat.

JUSTIFIKAZIOA

Ogasun Batzordean azaldu genuenez, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburu Arantxa Tapiak adierazi zuen turismoa Euskadin «hazten ari den sektore bat» dela. Barne produktu gordinaren % 5,3 izatetik ia % 6 izatera igaro da, eta 2015ean bisitari kopuruen marka guztiak hautsi ziren. Izan ere, 2016aren orain arteko zatian, uda bukatu ez delarik, datu guztiek adierazten dute 2016ak gainditu egingo dituela 2015eko mailak.

Orain, izapidetzen ari da Turismoaren Legearen proiektua. Lege proiektu horren asmoa da Euskadin turismo jarduerari lotutako alderdiak arautzea, eta turismo administrazioen jardunaren printzipio eta irizpideak ezartzea. Hala ere, nahiz eta turismoa dagoeneko barne produktu gordinaren % 6 den, proiektuan ez da sartu «turismo tasa» bat ezartzea, Estatuko nahiz Europako beste hiri batzuetan dagoeneko egiten ari direnari jarraituz.

Udalbatzaren 2015eko urriaren 29ko bilkuran, Irabazi Donostiakook mozio bat aurkeztu genuen, «tasa» hori ezartzea dela eta. Ez zen aurrera atera, nahiz eta «tasa» horrek eraginik ez lukeen izango turismoan, baina bai Udalaren diru kutxan, milioi bat euro baino gehiago biltzeko aukera izango bailuke,

“Amaia Martin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCION DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la comisión de HACIENDA del 11 de julio.

JUSTIFICACION

Tal y como manifestamos en la Comisión de Hacienda, según declaraciones de la consejera de Desarrollo Económico y Competitividad, Arantxa Tapia, el Turismo es un "sector en crecimiento" en Euskadi. Ha pasado de representar el 5,3% del PIB a rozar el 6% y en 2015 se batieron todos los récords de visitantes. De hecho, en lo que va de 2016, y sin haber pasado el verano, todos los datos indican que 2016 volverá a superar los niveles de 2015.

En estos momentos se encuentra en tramitación el Proyecto de Ley de Turismo. Este proyecto de ley pretende regular distintos aspectos relacionados con la actividad turística en Euskadi, así como establecer los principios y criterios de actuación de las administraciones turísticas. No obstante, y a pesar de que el turismo representa ya un 6% del PIB, el proyecto no ha incorporado el establecimiento de una “tasa turística”, tal y como ya están haciendo otras ciudades tanto del Estado como europeas.

En el Pleno de 29 de octubre de 2015, Irabazi Donostia presentamos una moción en relación al establecimiento de dicha “tasa” que no salió adelante, a pesar de que ésta no tendría un impacto en el turismo, pero sí en las arcas municipales que podrían recaudar más de un millón de euros si se toma como referencia la

Bartzelona adibidetzat hartzen bada. Diru sarrera handia litzateke, hiriari turismoak sortzen dizkion gastuei aurre egiteko, adibidez: kaleak garbitzea, hondakinak biltzea, trafikoa eta beste.

de Barcelona. Unos ingresos importantes para hacer frente a los gastos que el turismo genera a la ciudad como por ejemplo la limpieza viaria, la recogida de residuos, el tráfico, u otros.

Batzordearen bilkuran, zinegotzi ordezkariak jakinarazi zuen ez zutela alegaziorik edo eskaerarik aurkeztu, Turismoaren Legearen proiektuan aukeratzat sar dadin egoki deritzoten udalek «turismo tasa» hori ezarri ahal izatea, beste hiri batzuek dagoeneko egiten duten legez. Izan ere, turismoak diru sarrerak sortzen ditu, baina baita hainbat gastu ere, turismoa hartzen duten herriek egiten dituzten zerbitzuei loturik.

En la comisión el Concejal delegado informó de que no habían presentado ninguna alegación o solicitud para que el proyecto de Ley de Turismo incorpore la posibilidad de que los ayuntamientos que lo consideren oportuno puedan establecer esta “tasa turística”, tal y como ya lo hacen otras ciudades, ya que el turismo genera ingresos, pero también una serie de gastos asociados a los servicios que prestan las localidades que lo acogen.

Hilaren bukaeran behin betiko onartu asmo da Turismoaren Legearen proiektua. Beraz, borondate politikoa izanez gero, oraindik ez da berandu tasa hori sartzeko.

La aprobación definitiva del Proyecto de Ley de Turismo está prevista para fin de mes, por lo que si hay voluntad política todavía hay tiempo de incluir la citada tasa.

Horrexegatik aurkezten dugu ondorengo

Por ello presentar la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCION DE CONTROL

Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio egoki deritzen zuzemen guztiak egin ditzala, etorkizun den Turismoaren Legean sar dadin Euskal Autonomia Erkidegoko udalek «turismo tasa» bat ezarri ahal izatea, udalerri horietan egindako gaualdiengatik.

El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que realice cuantas gestiones considere oportunas para que la futura Ley de Turismo incluya la posibilidad de que los ayuntamientos de la Comunidad Autónoma de Euskadi puedan establecer una “tasa turística” por las pernoctaciones en los mismos.

Donostia, 2016ko uztailaren 15a

Donostia a 15 de Julio de 2016

Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea”.

Amaia Martin Garin
Portavoz del grupo municipal Irabazi Donostia”.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Amaia Martin Garin andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora Dª. Amaia Martín Garín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**II.2.2. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Zibismoaren Ordenantza dela eta.**

"Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, ondorengo KONTROL MOZIOA aurkezten du, hil honetan ZERBITZU OROKORRETAKO BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondoriotzat.

JUSTIFIKAZIOA

Zerbitzu Orokorretako Batzordearen hil honetako bilkuran, interpelazioa egin genion Kiroletako eta Gazteriako, Herri Segurtasuneko eta Herri Babeseko zinegotzi ordezkari Martin Ibaberi, kalean beren egoeraz informatzen zuten eta laguntza ekonomikoa eskatzen zuten pertsonei Udaltzaingoak jarritako zenbait zigor zirela eta. Horretarako, oinarri hartu genuen Zibismoaren Ordenantzako (Bide Publikoa Nola Erabili eta Txukun Eduki Arautzekoa zein Hiriko Paisaia Babestekoa) 16.2 artikuluan. Hain zuzen ere, 16. artikuluko aipatu puntuak hau dio:

**II.2.2. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre la Ordenanza de Civismo.**

"Loïc Alejandro, Concejal del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la COMISIÓN DE SERVICIOS GENERALES de este mes.

JUSTIFICACIÓN

En la Comisión de Servicios Gnerales del presente mes, interpelamos al concejal delegado de Deportes y Juventud, Seguridad Ciudadana y Protección Civil, D. Martin Ibabe sobre varias sanciones que la Guardia Municipal había puesto a personas que informaban de su situación y pedían ayuda económica en la calle, amparándose en el articulo 16.2 de la Ordenanza Municipal sobre el Civismo, el Uso y la Limpieza en la Vía Pública y la Protección del Paisaje Urbanos. En tal punto del artículo 16 se señala que "queda prohibido la petición de dinero o limosna

«Galarazita dago dirua edo limosna eskatzea herritarra behartuta, beldurtuta edo hitzez ala ekintzez gogaitarazita.»

ejercidas de forma coactiva, intimidatoria o molesta de palabra u obra".

Hala ere, jakin dugu zigorra jaso duten zenbait lagunek ez zutela egiten testu baten bidez bere egoeraren berri eman besterik, adibidez «Ayuda Gracias» testuarekin. Norberaren egoeraren berri ematea herritarrak behartzea eta beldurtzea dela jotzen da? Ezetz uste dugu.

Sin embargo tenemos constancia de casos de personas sancionadas mientras que lo único que hacían era informar mediante un texto de su situación, como por ejemplo "Ayuda Gracias". ¿El simple hecho de informar es considerado como ser coactivo e intimidatorio? Creemos que no.

Gehienetan etxerik eta baliabiderik gabe dauden pertsona horiek zigortzeak, gure iritzira, pobretasuna kriminalizatzea du helburu. Besteak beste errealitate horretaz ohartarazi zuen Caritas Espainiak, Genevan joan den martxoan Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Kontseiluak egindako 31. bilkuran: «Arduratzen eta kezkatzen gaituzten errealitateetako bat: pobretasunaren kriminalizazioa, munduko hiri askotan gauzatua izateko euskarri juridiko eta administratiboa ere aurkitzen duen gertaera bat.» Eta Caritasen ordezkariak aurrera jarraitu zuen, NBEko errelatore berezia interpelatzen: «gero eta zailtasun handiagoa dago, pertsona baztertuenek gune publikoa gozatu ahal izan dezaten. Arauek zigortuta dago, isun handiekin, hirietako eta herrietako kale eta plazetan bizi izaten direnen hainbat ekintza, hala nola lo egitea, jatea, joan-etorrian ibiltzea, limosna eskatzea edota norbere burua garbitzea».

Consideramos que sancionar a estas personas que se encuentran, en la mayor parte de los casos, en situación de sinhogarismo y sin recursos tiene como objetivo criminalizar la pobreza. Es una de las realidades que desde Caritas España advirtieron en la 31ª Sesión del Consejo de Derechos Humanos de Naciones Unidas en Ginebra el pasado mes de marzo : "Una de las realidades que nos ocupan y preocupan: la criminalización de la pobreza, un hecho que en muchas ciudades del mundo encuentra, incluso, soporte jurídico y administrativo para ser implementada". Y continúa la representante de Cáritas interpelando a la Relatora Especial de la ONU "hay una dificultad cada vez mayor de disfrutar del espacio público por las personas de mayor exclusión, con normativas que sancionan e imponen multas muy altas por acciones, como dormir, comer, transitar, pedir limosna o lavarse, propias de personas que viven en las calles y plazas de las ciudades y pueblos".

Housing Rights Watch erakundeak pobretasuna kudeatzeko zigor politiken Europako ikuspegia deskribatu du. Bada, erakunde horretatik adierazi dutenez, «legediek diote ekintzak zigortzen dituztela, ez dituztela pertsonak zigortzen». «Baina gure interpretazioa da zigor esparru anbiguoa

Desde Housing Rights Watch, que ha trazado la perspectiva europea de las políticas penales de gestión de la pobreza, señalan que "las legislaciones dicen que sancionan acciones, que no sancionan a las personas". "Pero nuestra interpretación es que se crea un marco penal ambigüo que, dependiendo de la

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

eratzen dela, eta toki bakoitzeko (hiria, herrialdea, eskualdea) orientazio politikoaren gorabeheran etorkizun kezkagarria sor dezake».

orientación política de cada lugar -sea ciudad, país, región- puede generar un futuro preocupante".

Etxegabeekin lan egiten duten Nazio Erakundeen Europako Federazioko (FEANTSA) zuzendari Freek Spinnewijnek hau dio: «Etxegabea izatea ez da aukera pertsonala, baizik eta hainbat desabantailaren emaitza. Pertsona horien bizitza zailtzeak ez du arazoa konpontzen. Ikusgaitzago gera daitezke, baina hor jarraitzen dute.»

El director de FEANTSA, La Federación Europea de Organizaciones Nacionales que trabajan con personas sin Hogar, Freek Spinnewijn, señala que: “Ser sin techo no es una elección personal, sino el resultado de una serie de desventajas. Hacer más difícil la vida de estas personas no resuelve el problema. Pueden quedar menos visibles, pero continúan ahí”.

Era berean, hainbat gizarte erakundetatik kritikatzen dute zer dinamika eramaten den aurrera; zenbait kasutan etxegabe bat artatzen duen lehena polizia bat izateak ez du esparrurik egokiena eratzen, arazoa tratatzeko. «Lege erantzukizun oso zabala ematen ari zaie esku hartuko duten pertsonei, poliziei. Pertsona horiek borondaterik hoberenarekin jardunda ere, ez dute bazterkeria artatzeko prestakuntzarik.»

Igualmente, desde diferentes organizaciones sociales critican la dinámica que se lleva a cabo, que según los casos, el primero en atender a una persona sin hogar sea un agente de la autoridad no crea un marco idóneo para el tratamiento del problema. “Se está dando una responsabilidad legal muy amplia a la persona que va a intervenir, a la policía, que aunque actúe con la mejor voluntad no tiene una formación en atención a la exclusión”.

Hondo debatea da uste dugula zigorra ez dela gizarte ekintzako zerbitzuen osagarri bat, eta zerbitzu horiek indartu behar direla. Kezkatuta gauzka itxura guztiek diotenez ordenantza urratzen ez zuten pertsonak zigortu izanak, eta kezkatuta gauzka horren arrazoia dela, beharbada, gizarte bazterkeria ikusgaitz egin nahi izatea.

El debate de fondo es que creemos que la sanción no es un complemento a los servicios de acción social, y que lo que hay que hacer es reforzar estos servicios. Nos preocupa el hecho de que se haya sancionado a personas que todo indica que no incumplían con la ordenanza, y nos preocupa que esto pueda obedecer a una voluntad de invisibilizar la exclusión social.

Horregatik, gai horretako zinegotzi ordezkariaren erantzunak jaso ondoren, uste dugu egokia dela aurkeztea ondorengo

Es por ello que, una vez recibidas las respuestas del concejal delegado en esta materia, consideramos oportuno presentar la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCION DE CONTROL

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio gizarte bazterkeriari buruz aplika dezala kudeaketa globalago bat, sail artekoa, parte hartzezkoa, kontuan hartuko dituela etxegabeak eurak eta gizarte erakundeak, hiriko Gizarte Ekintzako Kontseilua barne.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio handitu dezala gizarte zerbitzuetako gastua hurrengo urteko aurrekontuetan, hiri inklusibo baten aldeko politikak gara daitezen.

3. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio Udaltzaingoari jakinaraz diezaiola ezen, dirua edo limosna eskatzearen testuinguruan, laguntza ekonomikoa eskatzeko testu bat jartzea ez dadila hartu herritarra behartzearen, beldurtzearen edo hitzez ala ekintzez gogaitaraztearen gisara.

Donostia, 2016ko uztailaren 15a

Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia".

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a aplicar una gestión más global de la exclusión social, interdepartamental, participativa, que tenga en cuenta a las mismas personas sin hogar y a las entidades sociales, incluyendo al Consejo de Acción Social de la ciudad.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a aumentar el gasto en servicios sociales en los presupuestos del próximo año de modo que se desarrollen políticas en favor de una ciudad inclusiva.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a transmitir a la Guardia Municipal que, en el contexto de una petición de dinero o de limosna, la colocación de un texto pidiendo ayuda económica no sea considerado como algo coactivo, intimidatorio o molesto de palabra u obra.

Donostia a 15 de Julio de 2016

Loïc Alejandro
Concejal del grupo municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Olaia Duarte Lopez andreak eta Aitziber San Roman Abete andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Loïc Alejandro, D. José Luis Arrúe Pintó, Dª. Olaia Duarte López y Dª. Aitziber San Román Abete, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**2. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 2:**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 5 – (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 5 – (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.

2. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 2:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.

2. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 2:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.

---------------

II.2.3. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA

II.2.3. Moción de control presentada por el

**taldeak aurkeztua, Bizkaia pasealekutik eta Agirre Lehendakariaren zubitik Pio XII.aren kalera dagoen sarbidea dela eta.**

"Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martinek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, ondorengo KONTROL MOZIOA aurkezten du, hil honetan GUNE PUBLIKOETAKO BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) egindako interpelazioaren ondoriotzat.

JUSTIFIKAZIOA

Gune Publikoetako Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) hilaren 11n egindako bilkuran, Mugikortasuneko zinegotzi Pilar Aranari galdera egin genion, Bizkaia pasealekutik eta Agirre Lehendakariaren zubitik Pio XII.aren kalera dagoen sarbidean egingo den aldaketa dela eta. Izan ere, aldaketa horren eraginez, hiriarteko autobusen trafikoa, orain Urumeako autobidearen bidez egiten dena, berriz ere Carlos I.aren hiribidean barrena egingo da, eta hori dudarik gabe atzerapausoa da inguru hori hobetzeko bidean.

Pilar Aranak erantzun zuen ez dela Udalaren eskumena arautzea ea non gelditzen diren hiriarteko autobusak, ez eta nondik igarotzen diren ere. Gainera, iradoki zuen lehentasuna ematen ari ginela alde bateko auzotarrei, beste alde batekoen gainetik.

Erantzun horietako bat ere ez da onargarria. Izan ere, hiriko trafikoa antolatzea bada, bai, Udalaren eskumena. Hala onartuta dago bai Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean (Eskumenak: 25.2.b artikulua: «Herri barruko bideetan ibilgailuen eta pertsonen zirkulazioa antolatzea»), bai Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean (17. artikulua,

**Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre el acceso a Pio XII por Pº Bizkaia y Lehendakari Agirre.**

"Amaia Martin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCION DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la comisión de ESPACIO PUBLICO, OBRAS Y SERVICIOS URBANOS de este mes.

JUSTIFICACION

En la comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos del pasado día 11 preguntamos a la Concejal de movilidad, Sra. Arana, sobre el cambio que se va a realizar para acceder a Pio XII desde el Pº de Bizkaia y el puente Lehendakari Agirre, dado que éste provocará que el tráfico de salida de los autobuses interurbanos que ahora se realiza por la autovía del Urumea, vuelva a hacerlo por el vial de Carlos I, lo que sin duda es un paso atrás en la mejora de esa zona.

La Sra. Arana respondió que no es competencia del Ayuntamiento regular ni dónde paran, ni por dónde pasan los autobuses interurbanos, además de insinuar que estábamos priorizando el vecindario de una zona respecto al de otra.

Ninguna de estas respuestas es admisible, ya que la ordenación del tráfico en la ciudad sí es competencia del Ayuntamiento, como así lo reconocen tanto la LBRL (Competencias: Art. 25-2b: Ordenación del tráfico de vehículos, y personas en las•vías urbanas) como la Ley de Instituciones Locales de Euskadi (Art. 17-Competencias propias de los municipios 4-

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

«Udalerrien eskumen propioak»: «4. Udaltzaingoa, trafikoa, bide-segurtasuna eta ibilgailuen aparkalekuak antolatzea eta kudeatzea, eta herritarren segurtasunean laguntzea»). Horrenbestez, Udal Gobernuak, hala nahi baldin badu, neurriak abiaraz ditzake, hiriarteko autobusek hiritik irteteko zuzenean Urumeako autobidea erabil dezaten; halaxe egiten baitute autobus horiek, autobus geltoki berria funtzionatzen jarri zenetik.

Ordenación y gestión de la policía local, ordenación del tráfico, seguridad vial, estacionamiento de vehículos y colaboración en la seguridad ciudadana.), por lo que, si el Gobierno municipal tiene voluntad, puede poner en marcha medidas para que la salida de la ciudad de los autobuses interurbanos se realice directamente por la autovía del Urumea, tal y como lo hacen desde que se puso en funcionamiento la nueva estación de autobuses.

Pilar Aranak egindako iradokizuna (lehentasuna ematen ari ginela alde bateko auzotarrei, beste alde batekoen gainetik) onartezina iruditzen zaigun. Izan ere, gure taldetik beste horrenbeste argudia genezake, kontrara: Udal Gobernua lehentasuna ematen ari zaiola Aldunaeneari, Carlos I.aren gainetik. Eta hori ere onartezina litzateke gure aldetik. Uste dugu herritarren ordezkari garenon helburuak donostiarren interes orokorrari erantzun behar diola.

En relación con la insinuación de la Sra. Arana sobre nuestro mayor interés en el vecindario de una zona respecto al de otra, ésta nos parece inadmisible, puesto que también podríamos argumentarlo desde nuestro Grupo pero en sentido contrario: que el Gobierno municipal prioriza Aldunaene sobre Carlos I, lo que también sería inadmisible por nuestra parte. Creemos que el objetivo de quienes representamos a la ciudadanía debe responder al interés general de la población de Donostia.

Hiriarteko autobusen egungo trafikoan, Carlos I.a da sarbidea, eta Federico Garcia Lorca irtenbidea. Beraz, trafikoa bi aldetan dago banatuta, eta inon ez dituzte jasaten sarbidea eta irtenbidea batera. Alabaina, hori aurki aldatuko da, eta Carlos I.ari kalte egingo zaio Aldunaenearen mesedetan. Egoera hori, gure iritzira, saihestu beharko litzateke.

El actual flujo del tráfico de los autobuses interurbanos supone que Carlos I es la vía de entrada y Federico García Lorca la de salida, por lo que el mismo está repartido entre las dos zonas, sin que ninguna de ellas soporte ambos. Sin embargo, esto cambiará proximamente, perjudicando a Carlos I en beneficio de Alduna Enea, situación que a nuestro juicio debería ser evitada.

Horrexegatik aurkezten dugu ondorengo

Por ello presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCION DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio aplika ditzala beharrezko neurriak, geltoki berritik autobusak irteteko trafikoa aurrerantzean ere Federico

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que aplique las medidas que sean necesarias para que el tráfico de salida de los autobuses desde

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Garcia Lorca pasealekua eta Urumeako autobidea erabiliz bidera dadin, eta ez Carlos I.aren hiribidetik.

Donostia, 2016ko uztailaren 15a

Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

la nueva estación siga realizándose por Federico García Lorca y la autovía del Urumea, y no a través de Carlos I.

Donostia a 15 de Julio de 2016

Amaia Martin Garin
Portavoz del grupo municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras Dª. Amaia Martín Garín y Dª. Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 5 – (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 5 – (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

---------------

**II.2.4. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, autobus geltokiko aparkalekuaren tarifei buruzkoa.**

"Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, 2016ko uztailaren 11n GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) autobus geltokiko

**II.2.4. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre las tarifas del parking de la estación de autobuses.**

"Loïc Alejandro, concejal de Irabazi Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación sobre sobre las tarifas del parking de la estación de autobuses en la COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO, OBRAS Y

aparkalekuaren tarifei buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Autobusen geltokiko aparkalekua erabiltzen duen hiritar talde bat eratzen ari da aparkaleku horretako tarifak berraztertzea eskatzeko. Donostialdean bizi eta beste hiriburutan lan egiten duten pertsonak dira eta beren autoa geltokiko aparkalekuan utzi behar izaten dute lan egiten duten lekura autobusean jarraitzeko.

Geltokia oraindik Pio XII.aren plazan zegoenean, pertsona horiek 66 € ordaintzen zuten hilean 6:30etik 20:00etara bitarte aparkatu ahal izateko. Eta ez zegoen hil guztiak ordaintzera behartuta, alegia, pertsona horrek hileko abonua behar ez bazuen hilabete jakin batean (oporretan zegoelako adibidez) ez zuen hori ordaintzeko inolako obligaziorik.

Orain, geltoki intermodalaren aparkalekuan, hileko lan abonuak 110 € balio du 7:00etatik 19:00etara aparkatu ahal izateko. Kaltea nabarmena da: gehiago ordaindu behar da denbora gutxiago aparkatzeko. Gainera jende askok 7:00ak baino lehen hartu behar izaten du autobusa lantokira garaiz iristeko eta gehigarri bat ordaindu behar izaten du. Eta gainera, 19:00ak arteko muga oso zorrotza da: laneko ordutegiengatik edo bidean edozein atzerapen edo auto ilara izanez gero, gehigarri bat ordaindu behar izatearen probabilitatea oso handia da.

Eta hori gutxi balitz, abonua hilero ordaindu behar izatea nahitaezkoa da. Behar ez izateagatik abonua hilabete batean ordaindu ez zuen erabiltzaile baten lekuko oso

SERVICIOS URBANOS del día 11-07-2016.

JUSTIFICACIÓN

Un grupo de ciudadanos y ciudadanas usuarias del parking de la estación de autobuses se está constituyendo para pedir una revisión de las tarifas del mismo. Son personas que viven en Donostialdea y trabajan en otras capitales, y que necesitan dejar su coche en el parking de la estación para seguir su trayecto en autobús hasta su destino final.

Cuando la estación todavía estaba en Pio XII, esas personas pagaban mensualmente 66€ para poder aparcar entre las 6:30 y las 20:00; no había obligación de pagar todos los meses, es decir que si la persona no necesitaba el abono mensual durante algún mes concreto (por ir de vacaciones por ejemplo), no tenía obligación de pagarlo.

Ahora, en el parking de la estación intermodal, el abono laboral mensual cuesta 110 € para poder aparcar entre las 7:00 y las 19:00. El perjuicio es manifiesto: hay que pagar más para poder estar menos tiempo. Además mucha gente tiene que coger el bus antes de las 7:00 para llegar a tiempo a su destino, con lo cual tienen que pagar un suplemento. Del mismo modo, el limite de 19:00 es muy ajustado: por horarios laborales, o si ocurre cualquier retraso o atasco en el trayecto, la probabilidad de tener que pagar un suplemento es muy alta.

Por si fuera poco, es obligatorio pagar el abono todos los meses. Recogimos un testimonio muy ilustrativo de una usuaria que no había pagado el abono un mes por no necesitarlo. Al mes

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

adierazgarria jaso genuen. Hurrengo hilean, ordainduta zuen lan abonuarekin, ez zioten aparkalekuan sartzen utzi harik eta aurreko hilekoa ordaindu arte, aparkalekua ez erabili arren.

siguiente, con su abono laboral pagado, se le denegó la entrada al parking hasta que pagase el importe del mes anterior, a pesar de no haber usado el parking.

Bada 3 hilabeteko iraupena duen abonu bat, 20 egunekoa eta segidan 9 ordu egitekoa egunero, baina kasu horretan ere aparkatzeko ematen duten denbora laburregia da. Lanaldi oso batek, gehi bazkaltzeko denborak, gehi autobusean egin beharreko 3 ordu inguruko ibilbideak erraz gainditzen dituzte 9 ordu horiek eta, horrenbestez, abonu horrek ez du balio egunero beste hiriren batera lanera doan jendearentzat.

Existe un abono de 3 meses de duración, de 20 jornadas de 9 horas continuas cada jornada, pero en este caso también el tiempo de aparcamiento concedido es demasiado corto. Una jornada laboral completa, más el tiempo de almuerzo, más unas 3 horas de trayecto en transporte colectivo superan ampliamente las 9 horas, haciendo que ese abono resulte inútil para la gente que va a trabajar cada día a otra ciudad.

Eta hori gutxi balitz bezala, abonu horiek urte osoan dute iraunaldia, uztailean eta abuztuan izan ezik. Langile guztiek bi hilabete horietan hartzen dituzte oporrak ala? Kezkagarria iruditzen zaigu, turismo aldian diru sarrerak maximizatzeko, hiritarrak oraindik are gehiago kaltetzea.

Para colmo, todos los abonos tienen vigencia todo el año excepto julio y agosto. ¿Acaso todos los y las trabajadoras dejan de trabajar estos dos meses? Nos parece preocupante que, para maximizar los ingresos en periodo turístico, se perjudique aun más a los y las ciudadanas.

Aparkalekuko eta autobuseko ibilbideetako kostuetan langile horiek 4.440 €ko kopurua gastatu behar izaten dute urtean. Eta hori ordutegien muga gainditzeagatik kobratzen dituzten gehigarriak kontuan hartu gabe, eta jakina, horietan ordaindu beharreko kopurua ere handia izan daiteke.

Entre el coste del parking y los trayectos de autobús, esos trabajadores y trabajadoras llegan a gastar 4.440 € al año. Sin contar los suplementos por excederse de los limites de horarios que, como hemos visto, pueden ser numerosos.

Zuzendu beharko genukeen egoera bat da. Batzordean, Mugikortasuneko Zinegotzi Ordezkariak eman zituen erantzunetatik ulertu genuen ez zegoela ezer egiterik, Gobernuak arazo hori enpresaren esku utzi zuela, eta Gobernuak, hasieran behintzat, ez zuela horri buruz ezer egiteko asmorik. Arrazoi moduan adierazi zuen ez zela komeni tarifak berrikustea eskatzea 40 urterako emandako

Es una situación que deberíamos corregir. En comisión, de las respuestas que dio la Concejala Delegada de Movilidad, entendimos que no había nada que hacer, que el Gobierno había trasladado ese problema a la empresa, y que el Gobierno, en principio, no tenía intención de hacer nada al respecto. Como argumentos, señaló que no era conveniente pedir una revisión de las tarifas para una

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

emakida batean hilabete batzuk bakarrik igaro direnean ireki zenetik.

concesión a 40 años habiendo transcurrido tan solo unos meses desde su apertura.

Udalaren zeregin funtsezkoenetako bat udalerriko hiritarren interesak defendatzea da eta horien arazoei irtenbidea ematea. Kasu honetan, ikusi dugu autobus geltokiko erabiltzaileen kolektibo bat nahiko kaltetua izan dela eta, gainera, oso bidezkoa ez den moduan.

Uno de los papeles fundamentales del Ayuntamiento es defender los intereses de los y las ciudadanas del municipio y solucionar sus problemas. En este caso, vemos como un cierto colectivo de usuarios y usuarias de la estación de bus se ve perjudicado de manera importante y bastante injusta.

Sinatu diren kontratuak berrikusi eta aldatu egin daitezke. Enpresarekin negoziatu daiteke. Adierazi ahal izango zaio bera ere kaltetu egiten duela tarifei buruz duen politikak, izan ere gero eta gehiago dira Zarautzeraino bere autoan joaten diren erabiltzaileak, aparkatu eta autobusa han hartzeko.

Los contratos firmados se pueden revisar y modificar. Se puede negociar con la empresa. Se le puede explicar incluso que ella misma se ve perjudicada por su propia política tarifaria ya que cada vez más usuarios van hasta Zarautz con su coche para aparcar y coger el bus desde allí.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Prezioak baldintzetan zehaztuta daudela dioen egiaztapena ez dator bat kea ateratzeko arazoengatik inaugurazioa bertan behera utzi zenean enpresara deitu zuten bi erabiltzaileren testigantzarekin: ze abonu egin behar zituzten galdetu zieten, eta enpresak erantzun zien abonuak ez zituztela segituan egin behar, era horretako instalazioen kudeaketan sektoreko lehenengo enpresa zelako eta hori nola egin behar zen ikasten ari zirela.

La afirmación según la cual los precios eran especificados en los pliegos no encaja con el testimonio de dos usuarios que llamaron a la empresa cuando se canceló la inauguración por problemas de evacuación de humos: preguntaron qué abonos se iban a crear, y la empresa les contestó que en principio no iba a haber abonos de inmediato ya que era una empresa que se estrenaba en el sector de la gestión de ese tipo de instalación y que iban aprendiendo.

Bestetik, eragindako langileen kolektiboa sortzen ari den erabiltzaileak azaldu du enpresak ezusteko galanta hartu zuela ordutegiei eta abonuen prezioei buruz langileak dituzten arazoak erabiltzaile horrek enpresari azaldu zizkionean. Gobernuak arazo hori enpresaren esku utzi baldin badu Zinegotzi Ordezkariak azaldu digun moduan, badirudi informazio hori bidean galdu dela. Nolanahi ere, iruditzen zaigu badagoela nahikoa arrazoi gai horri buruz

Por otro lado, la usuaria que está creando el colectivo de trabajadores y trabajadoras afectadas relata la sorpresa de la empresa al contarle la usuaria los problemas que tienen los trabajadores relativos a los horarios y precio de los abonos. Si el Gobierno ha trasladado esa problemática a la empresa como nos ha comunicado la Concejala Delegada, parece que la información se ha perdido en el camino. Desde luego parece que hay margen para insistir sobre el tema.

eztabaidatzeko.

Amaitzeko, ez dugu ulertzen zer arrazoirengatik Zinegotzi Ordezkariak ez duen bidezkoa ikusten tarifak aldatzeko eskaera egitea aparkalekua ireki zenetik sei hilabetera. Alderantziz, arazo bat bistakoa baldin bada, ez dago urteak itxaron beharrik hori konpontzeko. Gauzak abian jartzen direnean, beti izaten dira akatsak edo ezustekoak, eta horiek ahalik eta azkarren konpondu behar dira.

Hori dela eta, ondokoa aurkezten dugu

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak eskatu nahi dio Udal Gobernuari egin ditzala egin beharreko kudeaketak autobus geltokiaren eta bere aparkalekuaren emakida duen enpresarekin, beste hirietara lan egitera autobusez joaten diren eta beren autoa geltokian aparkatu behar izaten duten pertsonei beren premietara hobeto egokituko den abonu bat emateko, eta abonu horren iraunaldia urte osokoa izateko.

Donostia, 2016ko uztailaren 15a

Stua.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

Para terminar, no entendemos por qué razón la Concejala Delegada considera no idóneo pedir una modificación de tarifas seis meses después de la apertura del parking. Al contrario, si se evidencia un problema, no hay que esperar años antes de solucionarlo. Cuando las cosas se ponen en marcha, siempre hay fallos o imprevistos que se deben subsanar lo antes posible.

Es por todo ello, que presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que haga las gestiones necesarias con la empresa concesionaria de la estación de bus y de su parking, con el fin de proporcionar a las personas que se desplazan en bus para ir a trabajar a otras ciudades, y que necesitan aparcar su coche en la estación, un abono que sea más adaptado a sus necesidades y que se mantenga todo el año.

Donostia a 15 de julio de 2016

Fdo.: Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Pilar Arana Perez andreak eta Axier Jaka Goikoetxea jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Loïc Alejandro, D. José María Murguiondo Casal, Dª. Pilar Arana Pérez y D. Axier Jaka Goikoetxea, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

---------------

**II.2.5. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, alokairuko etxebizitzei buruzkoa.**

"Irabazi Donostia udal taldeko Bozeramaile Amaia Martinek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu, eta KONTROL MOZIO hau aurkezten du, LURRALDE GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEAK uztailaren 11n izan zuen bileran egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Batzordean adierazi genuen moduan gaur egun dugun arazo garrantzitsuenetako bat etxebizitza bat izatearena da eta are gehiago oraindik Donostia bezalako hiri batean, eremu horretan estatuko hiririk garestienetakoa izatearen marka tamalgarria duelako.

Hirian beti hutsik dauden etxebizitzen kopurua 4.000 ingurukoa da. Nolanahi ere, Udal Gobernuak ez du inolako neurririk martxan jarri etxebizitza horiek alokairuen merkatura ateratzea sustatzeko hirian bizi diren pertsonentzat.

Tamalez, ordea, gertatzen da etxebizitza

**II.2.5. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre la vivienda de alquiler.**

"Amaia Martin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCION DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la comisión de DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO del 11 de julio.

JUSTIFICACIÓN

Tal y como manifestamos en comisión, uno de los problemas más importantes hoy en día es el acceso a una vivienda, más aún en una ciudad como Donostia / San Sebastián que tiene el lamentable récord de ser una de las ciudades más caras del estado en este ámbito.

El número de viviendas vacías de manera permanente en la ciudad alcanza las 4.000. No obstante, a nuestro juicio el Gobierno municipal no está tomando las medidas suficientes para fomentar su salida al mercado de alquiler para las personas residentes en la ciudad.

Lamentablemente, lo que si se percibe es que

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

horietako batzuk apartamentu turistikoak eraikitzeko xedatzen direla, horretarako erregistratuta dauden ala ez begiratu gabe. Adibide moduan, Aparture elkarteak 500 apartamentu turistiko ditu Donostian.

algunas de esas viviendas se destinan a apartamentos turísticos estén o no registrados como tales. A modo de ejemplo, sólo la asociación Aparture cuenta con 500 apartamentos turísticos en Donostia.

Hutsik dauden etxebizitza horiek apartamentu turistikoetarako erabiltzeak eragin gaiztoa du hemen bizi diren lagunek etxebizitza bat lortzeko aukeran, alde batetik zaildu egiten duelako etxebizitzetarako etengabeko eskaintza betetzeko egin dezaketen eskaintza, eta bestetik, berriz, garestitu egiten dituelako alokairuaren prezioak, eta horrek are gehiago zailtzen du hori lortzeko aukera. Halaber, apartamentu turistiko moduan alokatu daitekeen etxebizitza baten salmenta prezioaren gehikuntzan ere eragina izan dezake.

El uso de las viviendas vacías para apartamentos turísticos tiene un efecto perverso en el acceso a la vivienda para las personas residentes, ya que por un lado dificulta la oferta de los mismos para cubrir una demanda permanente de vivienda, y por otro encarece los precios del alquiler, lo que a su vez complica aún más el acceso a la misma. Asimismo, puede tener un efecto en el incremento del precio de venta de una vivienda que puede ser susceptible de ser alquilada como apartamento turístico.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Gainera, uste dugu apartamentu turistiko horietako asko jartzea indarrean dagoen Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean baimenduta dauden erabileren aurka doala eta, horrenbestez, Udalaren eginkizuna izango da hori eragozteko beharrezko baliabideak jartzea.

Creemos además que la implantación de muchos de esos apartamentos turísticos va en contra de los usos autorizados por el vigente Plan General de Ordenación Urbana, por tanto es obligación del Ayuntamiento articular los mecanismos necesarios para evitarlo.

Udal Gobernuak bere Gobernu programan azpimarratzen zuen eraikita dugun hiria gehiago nabarmendu behar dugula eraiki gabe duguna baino, eta alde horretatik hainbat jarduketa ezarri zituen Etxegintzaren bidez, hala nola etxebizitzen trukea errazteko zerbitzu bat martxan jartzea, “Alokabide” programarako etxebizitza gehiago lortzea edo alokairuko etxebizitzaren eskatzaileentzako zerrenda bakarra izatea.

El Gobierno municipal en su Programa de Gobierno hacía hincapié en la necesidad de de poner el acento en la ciudad construida más que en la ciudad por construir, y en ese sentido estableció una serie de actuaciones a través de Etxegintza como la puesta en marcha de un servicio para favorecer la permuta de viviendas, la captación de más viviendas para el programa “Alokabide” o la lista única de demandantes de vivienda en alquiler.

Halaber, Gobernu Programan ezarrita zegoen une hauetan ezertarako erabiltzen ez ziren eraikinetako titular ziren beste herri

Asimismo, el Programa de Gobierno establecía realizar gestiones con otras administraciones públicas titulares de edificios inutilizados en

administrazio batzuekin gestioak egin behar zirela eta horiek etxebizitzetarako egokitu daitezkeela, adibidez Espainiako Poliziaren lehengo etxeak edo Larratxoko Irale eraikina. Batzordean, horri dagokionez egiten ari diren gestioei buruz galdetu genion Zinegotzi ordezkariari baina ez genuen erantzun zehatzik jaso horri buruz.

este momento y que se podrían adecuar para viviendas como son las antiguas casas del Cuerpo Nacional de Policía o el edificio Irale en Larratxo. En Comisión preguntamos al Concejal delegado sobre las gestiones que están haciendo a este respecto, sin que tuviéramos una respuesta concreta al respecto.

Uliako mintegien eremuko Plan Berezia aldatzeko erabakia gazteentzako tutoretzako 70 apartamentu eraikitzea ahalbidetzeko hartu dela esan du Udal Gobernuak, bi arrazoi nagusi hauengatik: arrazoietako bat da bere Gobernu Programan dagoela, eta bestea, berriz, etxebizitza premia dagoela. Nolanahi ere, ez dirudi inolaz ere interesgarria denik Programa horretan bertan ere badauden eta helburu bera duten beste neurri batzuk martxan jartzea: etxebizitza lortzeko arazoari aurre egitea, baina gehiago begiratuz eraikita dugun hirira eraiki gabe dugunera baino.

El Gobierno municipal ha justificado su decisión de modificar el Plan Especial del ámbito de viveros de Ulia para permitir la construcción de 70 apartamentos tutelados para jóvenes por dos razones principalmente: una que está en su Programa de Gobierno, y otra la necesidad de vivienda. No obstante, no parece que tenga ningún interés en poner en marcha otras medidas que también están en el citado Programa y que tienen el mismo objetivo: abordar el problema del acceso a la vivienda, pero mirando más a la ciudad construida que a la ciudad por construir.

Horrexegatik aurkeztu dugu honako:

Por ello presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak eskatu nahi dio Udal Gobernuari Espainiako Poliziaren lehengo etxeetan eta Larratxoko Irale eraikinean, bere Gobernu Programan ageri den moduan, etxebizitzak egiteko Estatuko Administrazio Orokorrarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin gauzatzen ari den gestioei buruzko informazioa eman dezala.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que informe sobre las gestiones que está llevando a cabo tanto con la Administración General del Estado como con el Gobierno vasco para convertir en viviendas las antiguas casas del Cuerpo Nacional de Policía y el edificio Irale en Larratxo, tal y como figura en su Programa de Gobierno.

2. Donostiako Udalbatzak eskatu nahi dio Udal Gobernuari etxebizitzak trukatzea errazteko eta “Alokabide” programarako etxebizitza gehiago lortzeko Etxegintzarekin egiten ari den gestioei buruzko txostena aurkeztu

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que presente un informe sobre las gestiones que está realizando Etxegintza para favorecer las permutas de vivienda y para la captación de

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

dezala, eta horien emaitzari buruzko informazioa eman dezala.

3. Donostiako Udalbatzak eskatu nahi dio Udal Gobernuari apartamentu turistikoei buruzko txosten bat egin dezala eta txosten horretan hauek agertu daitezela:
- 2015eko uztailetik eman den baimen kopurua, horien kokapena adieraziz.
- 2015eko uztailetik ukatu den baimen kopurua, horien kokapena eta horiek ukatzeko izan diren arrazoiak azalduz.
- 2015eko uztailetik emateko zain dagoen eskatutako baimen kopurua, horien kokapena eta eman gabe egoteko dauden arrazoiak azalduz.

4. Donostiako Udalbatzak eskatu nahi dio Udal Gobernuari hirian apartamentu turistikoak ezartzeko plangintza gauzatu dezala.

5. Donostiako Udalbatzak eskatu nahi dio Udal Gobernuari indarrean dagoen Legerian aurreikusitako hirigintza legeria berrezartzeko legezko mekanismoak artikulatu ditzala, indarrean dagoen Plan Orokorrean baimentzen ez diren erabilerak desagerrarazteko.

Donostia, 2016ko uztailaren 15a

Amaia Martin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

más viviendas para el programa "Alokabide", así como sobre el resultado de las mismas.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a elaborar un informe sobre los apartamentos turísticos en el que figuren:
- El número de licencias concedidas desde julio de 2015, indicando su ubicación.
- El número de licencias denegadas desde julio de 2015, indicando su ubicación y los motivos por los que se han denegado.
- El número de licencias solicitadas pendientes de concesión desde julio 2015, indicando su ubicación y los motivos por los que están pendientes.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que lleve a cabo una planificación del establecimiento de apartamentos turísticos en la ciudad.

5. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que articule los mecanismos legales de restablecimiento de la legalidad urbanística previstos en la Legislación vigente para erradicar los usos no autorizado por el vigente Plan General.

Donostia a 15 de Julio de 2016

Amaia Martin
Portavoz del grupo municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Enrique Ramos Vispo jaunak eta Miren Albistur Garmendia andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Amaia Martín Garín, D. Ricardo Burutarán Ferré, D. Enrique Ramos Vispo y Dª. Miren Albistur Garmendia, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**5. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**5. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**5. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.**

**5. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 – (8) EAJ-PNV, (7)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 – (8) EAJ-PNV, (7)**

PSE-EE, (2) IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.

PSE-EE, (2) IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.

**5. KONTROL MOZIOAREN 5. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 5 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**II.2.6. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Belartzagaina (Belartza II) AÑ13.1 azpialorraren erabilera dela eta.**

"Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, ondorengo KONTROL MOZIOA aurkezten du, LURRALDEAREN GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEAN 2016ko ekainaren 20an aztertu zen Belartzagaina (Belartza II) AÑ13.1 azpialorraren erabilerari buruzko interpelazioaren ondoriotzat.

JUSTIFIKAZIOA

Belartzagaina (Belartza II) AÑ13.1 azpialorrak egindako administrazio ibilbidea konplexua da:

1. 1995eko Hiria Antolatzeko Plan Orokorrean, landa eremutzat zegoen kalifikatuta ingurua.

**II.2.6. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre el uso del subámbito AÑ13.1 Belartza Alto (Belartza II).**

"Loïc Alejandro, concejal de Irabazi Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación sobre el uso del subámbito AÑ13.1 Belartza Alto (Belartza II) en la COMISIÓN DE DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO del día 20-06-2016.

JUSTIFICACIÓN

El recorrido administrativo de AÑ13.1 Belartza Alto (Belartza II) es complejo:

1. En el PGOU de 1995 la zona era calificada de rural.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

2. HAPOaren 2007ko Aldaketa batean (HAPOA) landa eremutzat jotzen zena eremu hiritargarri gisa kalifikatu zen, ia 21 Ha-ko industria eremu berri bat sortzeko. Argi ikus daiteke xehetasun horri eskainitako atalaren murriztasunean ez dagoela birkalifikazio hori egiteko justifikaziorik, eta hala, bertan adierazten da, hori bermatzeko inolako azterketarik gabe, “Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren eskaera handia dagoela ikusirik, komenigarritzat jo dela eremu berri bat garatzea...”. Auzitegietara jo ondoren onetsi zen HAPOaren aldaketa hori, Aldundiarekin eztabaida luzea izan eta gero, Aldundiak uko egiten baitzion hori onesteari, bere ustez haren edukia gehiago zelako Plan Orokor baten berrikuspena, aldaketa puntual bat baino.

2. En una Modificación del PGOU (MPGOU) de 2007 se recalifica la zona de rural a urbanizable para crear una nueva zona industrial de casi 21 Ha. La falta de justificación para tal recalificación se refleja en el reducido apartado destinado a este aspecto, donde, sin estudio alguno que lo avale, se dice que “Constatada la gran demanda de suelo para actividades económica, se ha considerado convenientes acometer el desarrollo de un nuevo ámbito….”. Esa modificación del PGOU fue aprobada vía tribunales, tras un continuado conflicto con Diputación, quien se negaba a aprobarlo por entender que su contenido era más propio de una revisión del Plan General que de una modificación puntual.

3. 2009. urtean, krisialdi ekonomikoaren erdi-erdian, aukeratutako bide horri eutsi zion Udalak eta azpialor honen Plan Partziala behin betiko onetsi zuen, nahiz eta gauza nabarmena zen industria lurzoruaren eskaera asmakizun bat izan zela garai hartan (eta gaur egun ere bai).

3. En el año 2009, en plena crisis económica, el Ayuntamiento insistió en la vía elegida y aprobó definitivamente el Plan Parcial de este subámbito, pese a que era evidente que la demanda de suelo industrial era una quimera en aquella época (y hoy también).

4. 2009ko urrian, azpialor horren Hirigintza Jarduneko Programa (HJP) onetsi zen. Tresna horren bidez, exekuzio sistematzat Adostearena definitu zuten, eta lau urteko gehieneko exekuzio epea ezarri zuten lagapenaren, berdintasunezko banaketaren eta hirigintza lanen eginbeharrak betetzeko.

4. En octubre de 2009 se aprobó el Programa de Actuación Urbanizadora (PAU) de dicho subámbito. En este instrumento se definía el sistema de ejecución como el de Concertación y se fijaba un plazo máximo de ejecución de cuatro años para el cumplimiento de los deberes de cesión, equidistribución y urbanización.

5. 2009-11-26an, dagokion Adoste Hitzarmena sinatu zuten Udalaren eta azpialor horren barruko lursailen % 50 baino gehiagoren jabe ziren enpresen artean.

5. Con fecha 26-11-2009 se firmó el preceptivo Convenio de Concertación entre el Ayuntamiento y la empresas propietarias de más de 50% de los terrenos incluidos en el subámbito.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

6. 2010ean HAPO berria onetsi zuten eta azpialor horren kodea aldatu egin zuten (lehen: AÑ14, orain AÑ13.1).

Xehetasun ugarik ematen digute bidea esateko Belartzagaina (Belartza II) AÑ13.1 azpialorrak interes ekologiko nabaria, aitortua eta babestu beharrekoa duela:

- Donostia Hiria Antolatzeko Plan Orokorreko ingurumen sostengagarritasuneko txostenean onartzen da Unanue – Añorga aldea tokiko eskalako korridore ekologiko bat dela. “Plan Orokorrak onartzen eta jasotzen ditu aipatu korridore ekologikoen existentzia eta interesa (…).Jardunen batek faunaren konektibitate ekologikoa eta mugimenduak arriskuan jar baldin baditzake, babesteko eta zuzentzeko neurri egokiak ezarriko dira, eragina txikiagotzeko edo are ezabatzeko.”

- “Ingurumen Sailburuordetzaren 2009ko urriaren 14ko ebazpena, Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren ingurumen eragineko behin betiko txostena azaltzen duena”. Nahitaezko txosten honek hauxe gomendatzen du: “Landaredia —bereziki basoak, landare multzoak, heskaiak eta urbazterreko landaredia— kontserba dadin zaintzea. Udalerriko baso masak hedadura eta aniztasun osoan kontserbatu behar dira, basoek egiten dituzten babes, ekoizpen, konexio eta gizarte eginkizunengatik.”

- Geroago, hauxe esaten da txosten

6. En 2010 se aprueba el nuevo PGOU y el subámbito cambia de código (antes: AÑ14, ahora AÑ13.1).

Numerosos elementos permiten afirmar que este subámbito AÑ13.1 Belartza Alto (Belartza II) tiene un interés ecológico manifiesto, reconocido, y a proteger:

- El Informe de Sostenibilidad Ambiental del PGOU Donostia reconoce que la zona de Unanue – Añorga es un corredor ecológico de escala local. “El PG reconoce y recoge la existencia y el interés de los mencionados corredores ecológicos (…) En el caso de que alguna actuación pueda poner en peligro la conectividad ecológica y los movimientos de la fauna, se establecerán las oportunas medidas protectoras y correctoras para minimizar el efecto o incluso anularlo.”

- La “Resolución de 14 de octubre de 2009 de la Viceconsejería de Medio Ambiente por la que se formula informe definitivo de Impacto Ambiental del PGOU”. Ese informe preceptivo recomienda lo siguiente: “Velar para que la vegetación sea conservada, especialmente los bosques, los conjuntos vegetales, los setos y la vegetación ribereña. Las masas forestales del municipio deben ser conservadas en toda su extensión y diversidad, en razón de las funciones protectoras, productoras, conectoras y sociales de los bosques.'

- Más adelante, el mismo informe dice lo

berean: «Belartza II. Zuhaitz landaretza autoktonoaren gutxi gorabehera 60.000 m²-ri eragin diezaiekete azpialor honetan egin asmo diren jardunek. Zuzendaritza honen gomendioa da zuhaizti horiek espazio libreetarako jartzea, edozein afekzio izan dezaten saihestuta.” (Txostenean bertan dago azpimarra.)

siguiente: “Belartza II. Alrededor de 60.000 m² de vegetación arbórea autóctona podría verse afectada por las actuaciones previstas en este subámbito. Esta dirección recomienda que estos bosquetes se destinen a espacios libres, evitando cualquier afección a los mismos.” (el subrayado es del propio informe).

- Belartza II mendigune karstiko batean dago. Horrek dakartzan ezaugarri geologiko eta ekologikoek erakargarri egiten dute galtzeko arriskuan diren espezieen katalogoan sartutako saguzar babestuen espezie jakin batzuentzat. Bada “lehentasunezko babesleku” bat, Belartzagaina AÑ13.1 azpialorretik 350 metrora, eta Ingurumen Sailburuordetzak berriz ere adierazten du, horregatik, beharrezkoa dela basoa bere hartan mantentzea.

- Belartza II se encuentra inmerso en un macizo kárstico lo que determina unas características geológicas y ecológicas que lo hace atractivo a determinadas especies de murciélagos protegidos incluidos en el Catálogo de Especies Amenazadas. Existe un “refugio prioritario” a 350 metros de AÑ13.1 Belartza Alto, y la Viceconsejería de Medio Ambiente vuelve a insistir, por ese motivo, en la necesidad de mantener el bosque intacto.

- Natura Ondarearen eta Bioaniztasunaren 42/2007 Legeko 20. artikuluan, adierazten da beharrezkoa dela bioaniztasunerako nabarmenak diren naturaguneen arteko konexio eremuak babestea; 46.3 artikuluan, ezartzen du “organo eskumendunek beharrezko neurriak hartu beharko dituztela, Natura 2000 saretik kanpoko habitatak hondatzea edo kutsatzea saihesteko”.

- La Ley 42/2007, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, en su artículo 20, señala la necesidad de preservar los espacios conectores entre espacios naturales relevantes para la biodiversidad, en su artículo 46.3 establece que “los órganos competentes deberán adoptar las medidas necesarias para evitar el deterioro o la contaminación de los hábitats fuera de la Red Natura 2000”.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko 16/1994 Legeko 2.e) artikuluan adierazita dagoenez, “Landaredia gorde egin behar da. Basoak, landare multzoak, palaxuak eta ibai ertzetako landaredia batik bat”.

- La Ley 16/1994, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, en su artículo 2e), indica que “la vegetación debe ser conservada, especialmente los bosques, los conjuntos vegetales, los setos y la vegetación ribereña”.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

- Azpialor horretan garrantzi ekologiko handiko bi eremu daude, maiatzaren 21eko Habitaten 92/42/EEE Zuzentaraua aplikatuz babestuta egon beharko luketenak. Interes Komunitarioko Habitatak dira, biak ere Belartza IIan daude, eta horiek kontserbatzeko, aipatutako Zuzentaraua aplikatuz, “beharrezkoa da kontserbazio bereziko eremu batzuk izendatzea”.

- En el subámbito existen dos áreas de importancia ecológica que deberían haber sido protegidas en aplicación de La Directiva 92/42/CEE Directiva Habitats de 21 de mayo. Son Hábitats de Interés Comunitario ambos existentes en Belartza II y cuya conservación, por aplicación de esa Directiva, “requiere la designación de zonas de especial conservación”.

- Eusko Jaurlaritzaren ingurumen kartografiako sisteman (GeoEuskadi bisorea) ikus daiteke Belartza II hegoaldeko zuhaitz igelaren babes eremuaren barruan dagoela. Hegoaldeko zuhaitz igela Arriskuan duden Espezieen Euskadiko Zerrendan sartuta dago, “galtzeko arriskuan” kategorian.

- En el sistema de cartografía ambiental del Gobierno Vasco (VisorGeoEuskadi) se puede ver que Belartza II se encuentra dentro de la zona de protección de la ranita meridional que está incluida en el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas en la categoría de “en peligro de extinción”.

- Kartografia sistema horretan Interes Komunitarioko Habitat bat dagoela adierazten da, “6510, altitude txikiko sega belardi elkorrak (Alopecurus pratensis, Sanguisorba officinalis)” izenekoa, Habitaten Zuzentarauaren arabera babestu egin beharko litzatekeena. Aski da esatea, Plan Partzialaren bidez babestu gabe utzi ez ezik, Belartza Harrobitik ateratako lur soberakinen legez kontrako pilaketa egin dutela horren jabeek, eremu horretan hain zuzen ere. Lur pilaketa hori eginez Belartza IIren Plan Partzialaren aurreikuspenak urratu dituzte, berariaz baitiote ez dela kanpoko lurrik behar hori garatu ahal izateko.

- El mismo sistema de cartografía indica la presencia del Hábitat de Interés Comunitario denominado “6510, Prados pobres de siega de baja altitud (Alopecurus pratensis, Sanguisorba officinalis)” que se debería proteger según la Directiva Habitats. Basta con decir que no solo no se ha protegido con el Plan Parcial, sino que posteriormente la propiedad ha realizado ilegalmente el depósito de los excedentes de tierra de provenientes de Belartza Cantera precisamente en esta zona. Depósito realizado con infracción de las propias previsiones del Plan Parcial de Belartza II, que dice expresamente que no se necesitan tierras externas para su desarrollo.

- Gauza jakina da Donostialdea Bidasoa Beheko Lurralde Plan Partzialak (LPP),

- Es conocido que el Plan Territorial Parcial (PTP) Donostialdea Bajo

egun izapidetzen ari denak, Belartza II eremuan babestu beharreko helburu garrantzitsuak hauteman dituela, eta eremu hori "hiri aldirietako landa eremurako" xedatu du. Belartza II bezala, onetsita bai baina exekutatu gabe dauden hirigintza garapenak desklasifikatzea proposatzen du LPP honek. Horrela dio LPPak: "Jada existitzen diren hirigintzako erabilerak finkatzen dira eta udaleko plangintza orokorrean berhausnarketa baten eraginpean jarriko dira, kasu honetan, plangintzan aurreikusitako hirigintza erabilerak, baina oraindik garatuta ez daudenak".

Bidasoa, actualmente en tramitación, tiene detectados en la zona de Belartza II importantes objetivos ecológicos a proteger y destina la zona a "suelo rural periurbano". Ese PTP propone desclasificar aquellos desarrollos urbanísticos que, como Belartza II, están aprobados, pero no ejecutados. Dice así el PTP: "Se consolidan en estas zonas los usos urbanísticos preexistentes y se someterán a reconsideración territorial en el planeamiento general municipal, en su caso, los posibles usos urbanísticos previstos en el planeamiento, pero todavía no desarrollados".

2007 arte, Belartzagaina AÑ13.1 azpialorra landa ingurunekoa zen. Orduz geroztik, industrialde bat egiteko xedatuta dago. Batzordean, zinegotzi ordezkariak plangintza hori aldeztu zuen. Azaldu zuenez, hiriak ekonomia jarduerarako lurra behar du, eta, koherentziaz, ez da planteatu Plan Orokorra aldatzea, eremu hori berriz landatartzat kalifikatzeko. Epe luzeko hirigintza planifikazioa garrantzitsua eta beharrezkoa da, baina batzuetan planifikazio hori desfasatu egiten da errealitatearekin, eta benetako eta unean uneko inguruneari egokitu behar zaio.

Hasta 2007 el subámbito AÑ13.1 Belartza Alto era rural. Desde entonces se destina para la realización de un polígono industrial. En comisión, el Concejal Delegado defendió esa planificación explicando que la ciudad necesita suelo para actividad económica y que por coherencia no se ha planteado modificar el Plan General con el objetivo de calificar nuevamente este espacio como rural. La planificación urbanística a largo plazo es importante y necesaria, pero a veces esa planificación se desfasa con la realidad y se debe ajustar la planificación acorde con el contexto real y actual.

Egungo testuingurua da badirela birgaitu beharreko industria eremu andeatuak, edo hutsik dauden zelaiguneak, hala nola Eskuzaitzeta: eremu hori urbanizatzeko, habitat naturalaren 70 Ha deuseztatu ziren, eta urteak igarota oraindik enpresa bakar bat ere ez da han jarri. Horrenbestez, egungo testuingurua da beste industria eremu bat egitea ez dela beharrezkoa, batez ere hiriaren alde horretan, dagoeneko badituelako halako

El contexto actual es que existen áreas industriales degradadas por rehabilitar, o explanadas desiertas, entre las cuales Eskuzaitzeta, para el que se eliminaron 70 Ha de hábitat natural para su urbanización, y que años después sigue sin una sola empresa instalada. Por lo tanto, el contexto actual es que realizar una nueva zona industrial no es necesario, sobre todo en esta zona de la ciudad que cuenta ya con infraestructuras de

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

azpiegiturak inguruan.

Logikaz eta koherentziaz, Plan Partziala, HJP eta Adoste Hitzarmena iraungita daudela jo beharko litzateke, eta eremu hau landa eremu gisa birkalifikatu, interes ekologikoa duelako eta ez dela beharrezkoa hirigintza lanik egitea. Gogoan izatekoa da ez dela teknikoki edo administratiboki zaila. Plan Orokorraren aldaketen adibide ugari ditugu (San Bartolome, Garbera, Uliako mintegiak…), eta garbi erakusten digute aldaketa horiek ohiko jardunbide bat direla.

Gainera, hori kalte-ordainik emateko betebeharrik gabe egin liteke. Izan ere, Zoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko 7/2015 Errege Lege-dekretuko 48. eta 38. artikuluetan zehaztuta dagoenez, aldaketak kalte-ordainaren eskubidea sor dezan, beharrezkoa da “aldaketa bere garapenerako ezarritako epeak igaro baino lehen gertatzea”. Alabaina, azpialorreko hirigintza jarduneko programak, jardun integratuen garapena eta egikaritzea arautu eta antolatzen duen tresnatzat, 1.3.3 atalean (ETAPETAKO PLANA ETA EGIKARITZE EPEA) gehienez 4 urteko epea adierazten du. Hirigintza jarduneko programa duela 7 urte onartu zen; Hiria Antolatzeko Plan Orokorra, duela 6 urte. Beraz, jarduera hori exekutatzeko epea luze eta zabal gaindituta dago.

Amaitzeko, adierazi behar dugu ez dela egin Ingurumen Eraginari buruzko Azterketarik (IEA). Ez 2007ko HAPOaren aldaketak eta ez Plan Partzialak ere ez dute IEArik. Eta hala eta guztiz ere, 2008ko Arartekoaren Txostenak argi eta garbi azaltzen duen moduan, 9/2006

este tipo alrededor.

Por lógica y coherencia, se debería declarar la caducidad del Plan Parcial, del PAU y del Convenio de Concertación resultante, y recalificar este espacio a espacio rural por su interés ecológico y porque resulta innecesario urbanizarlo. Cabe recordar que no se trata de hacer algo técnicamente o administrativamente difícil. Tenemos numerosos ejemplos de modificaciones del Plan General (San Bartolome, Garbera, Viveros de Ulia, …) que demuestran que esas modificaciones resultan ser una práctica bastante habitual.

Además, esto se podría hacer sin que haya obligación de indemnizar, ya que el Real Decreto Ley 7/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana, en sus artículos 48 y 38 indica que la alteración da lugar a derecho indemnizatorio siempre que la alteración “se produzca antes de transcurrir los plazos previstos para su desarrollo”. Ahora bien, el PAU del subámbito, en su condición de instrumento que regula y organiza el desarrollo y ejecución de las actuaciones integradas, en su apartado 1.3.3 PLAN DE ETAPAS Y PLAZO DE EJECUCIÓN indica un plazo máximo de 4 años. El PAU se aprobó hace 7 años, el nuevo PGOU hace 6 años. Por tanto, el plazo para la ejecución de tal actuación está ampliamente sobrepasado.

Para finalizar, debemos señalar la inexistencia de un Estudio de Impacto Ambiental (EIA). Ni la modificación del PGOU 2007, ni el Plan Parcial contienen un EIA. Y sin embargo, como correctamente explica el Informe del Ararteko de 2008, desde la aplicación de la Ley 9/2006,

Legea aplikatzen hasi zenez geroztik, 2001/4/EE Europako Zuzentaraua Espainiako zuzenbidera ekartzen duela, Plan Partzial guztiek dagokien IEA eduki behar dute, baina hori ez zen EAEn aplikatzen, bertako legeria zaharkituta zegoelako. Gerora, 211/2013 Dekretua 21/2013 Legea onesteak are garbiago utzi dute ezinbestekoa dela IEA horiek eskatzea Plan Partzialei dagokienez. Era berean, Plan Partzial horrek ez zuen sostengagarritasun ekonomikoaren txostenik.

Hori dela eta, ondokoa aurkezten dugu

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udal Osoko Batzarrak Udal Gobernuari eskatzen dio ahalik eta azkarren ekin diezaion Belartzagaina (Belartza II) AÑ.14 sektoreari dagozkion ondorengo hirigintza tresnak iraungitzeko prozedurari, bertan jasotako konpromisoak eta exekuzio epeak behin eta berriz urratu izan direla ikusita:

- Plan Partziala, 2009-02-27an behin betiko onetsia.
- Hirigintza Jarduneko Programa, 2009-10-23an behin betiko onetsia.
- Sektore horretako Adoste Hitzarmena, 2009-11-26an sinatua.

1. Donostiako Udal Osoko Batzarrak Udal Gobernuari eskatzen dio beharrezko izapideak egin ditzala Belartzagaina (Belartza II) AÑ.14 sektorea berriro landa eremu gisa kalifikatzeko, horrek dituen balio ekologikoak kontuan izanda.

que traspone al derecho español la Directiva comunitaria 2001/4/CE, todos los Planes Parciales deben ir acompañados por su correspondiente EIA, algo que no se aplicaba en la CAV por tener una legislación desfasada. Posteriormente, la aprobación del Decreto 211/2012 y de la Ley 21/2013 han dejado todavía más clara la exigibilidad de esos EIA a nivel de Plan Parcial. Igualmente, el Plan Parcial no contó con el informe de sostenibilidad económica.

Es por todo ello, que presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que inicie, con la mayor brevedad posible, el procedimiento de caducidad de los siguientes instrumentos urbanísticos referidos al sector AÑ.14 Belartza Alto (Belartza II), ante el incumplimiento reiterado de los compromisos y plazos de ejecución contenidos en los mismos:

- Plan Parcial, aprobado definitivamente el 27-02-2009.
- Programa de Actuación Urbanizadora, aprobado definitivamente el 23-10-2009
- Convenio de Concertación de dicho Sector firmado el 26-11-2009.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que realice los tramites necesarios para calificar al sector AÑ.14 Belartza Alto (Belartza II), de nuevo como suelo rural en atención a los valores ecológicos que sustenta.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Donostia, 2016ko uztailaren 15ª

Sin.: Loïc Alejandro
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

Donostia a 15 de julio de 2016

Fdo.: Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro, D. Ricardo Burutarán Ferré y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

---------------

**II.2.7. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, garapenerako lankidetzari buruzkoa.**

"Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. Artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa OGASUN Batzordean joan den ekainean bideratutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurtengo aurrekontuek Udalaren aldetik 1,37 milioi euroko ekarpena egitea aurreikusten

**II.2.7. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre cooperación al desarrollo.**

"Amaia Martin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la comisión de HACIENDA del pasado mes de junio.

JUSTIFICACIÓN

Los presupuestos de este año contemplan una aportación a Cooperación al Desarrollo de 1,37

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

dute Garapenerako Lankidetzarako, eta zenbateko hori aurrekontu osoaren % 0,37 da. Zoritxarrez, 2016ko aurrekontuetan % 0,7ra iristeko aurkeztu genuen zuzenketa ez zuen onartu EAJk eta PSEk osatutako Udal Gobernuak; hori dela eta, Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legean onartutako helburuaren erdibidean geratzen da Gobernua. Hain zuzen ere, herrialde pobretuetan garapena eta lankidetza sustatzeko politiketarako % 0,7 xedatzea gomendatzen du Nazio Batuen Erakundeak.

millones de euros por parte del Ayuntamiento lo cual equivale al 0,37 % del presupuesto. Lamentablemente la enmienda que presentamos en los presupuestos de 2016 para llegar al 0,7 % no fue aceptada por el Gobierno Municipal del PNV y PSE; en consecuencia, el Gobierno se queda a mitad de camino del objetivo asumido por la en la Ley 1/2007 de 22 de febrero, de Cooperación para el Desarrollo que asume el marco de Naciones Unidas de destinar un 0,7% a políticas de cooperación y desarrollo con países empobrecidos.

Joan den ekainean interpelazio bat aurkeztu genion Ogasuneko Zinegotzi Ordezkari Domínguez-Macaya jaunari, gai honen inguruan. Bere erantzunean, Gasteizek eta Bilbok lankidetzarako eta garapenerako egindako ekarpenei buruzko informazioa eskaini zigun, baita Foru Aldundiek egindakoei buruzkoa eta beste leku batzuetako datuak ere, eta adierazi zuen Donostia dela % 0,7ko helburu horretara gehien hurbiltzen dena. Beste administrazio batzuek dituzten jardunbide desegokien adibideak ere eman zituen, eta hemen ez da horrelakorik gertatzen, eta hori, gure ikuspuntutik, geure gain hartutako konpromisoak erabat betetzea baino ez da.

El pasado mes de junio interpelamos al Concejal delegado de Hacienda, Sr. Domínguez-Macaya, sobre esta cuestión. En su respuesta nos facilitó información sobre las aportaciones de Gasteiz y Bilbao a cooperación y desarrollo, así como las de las Diputaciones Forales, y datos de otros lugares, señalando que Donostia es la que más se aproxima al objetivo del 0,7%. También puso ejemplos de malas prácticas de otras administraciones que aquí no se dan, lo que no desde nuestro punto de vista no es más que el cumplimiento íntegro de los compromisos adquiridos.

Halaber, Domínguez-Macaya jaunak adierazi zuen Udal Gobernuak lankidetzarako eta garapenerako egungo zenbatekoari bere horretan eusteko asmoa zuela, eta pixkanaka handitzen joateko helburua eduki behar zuela, % 0,7raino iritsi arte, nahiz eta azkenean ez zuten inolako konpromisorik proposatu helburu horretara iristeko.

Asimismo, el Sr. Domínguez-Macaya, manifestó la intención del Gobierno municipal de mantener el importe actual para cooperación y desarrollo, y que el objetivo debía ser incrementarlo de manera paulatina hasta llegar al 0,7%, aunque finalmente no planteó ningún compromiso para llegar a ese objetivo.

Horrekin loturik, joan den ekainaren 14an, Lankidetzarako eta Garapenerako Heziketa Kontseiluaren bileran “Donostiako Udalaren

A este respecto, el pasado 14 de junio, durante la reunión del Consejo de Cooperación y Educación para el Desarrollo en la que se

Giza Garapen Iraunkorrerako Lankidetza eta Heziketa Plana, 2012-2015"ri buruzko ebaluazioa aurkeztu zuten, eta bertan, halaber, Udalak legegintzaldi honetan % 0,7raino iristeko konpromisoa bere gain hartu behar zuela proposatu zuten.

presentó la evaluación del "Plan de Cooperación y Educación para el Desarrollo Humano Sostenible del Ayuntamiento de Donostia, 2012-2015", se planteó la necesidad de que el Ayuntamiento asuma el compromiso de alcanzar el 0,7% a lo largo de la legislatura.

Halaber, Euskadiko GKEen Koordinakundeak bere kezka agertu zuen, bai udal mailan eta bai erkidego mailan ere, zenbateko horiek ez direlako handitzen ari eta behin eta berriz urratzen ari direlako 2007ko Lankidetzarako Euskal Legea.

También la Coordinadora de ONGs de Euskadi ha mostrado su preocupación tanto a nivel municipal como autonómico porque, las cifras están estancadas y se incumple de forma reiterada la Ley Vasca de Cooperación de 2007.

Hori dela eta, beharrezkoa iruditzen zaigun ondorengo kontrol mozioa aurkeztea:

Es por ello, que consideramos necesario presentar la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio legegintzaldi honetan barrena garapenerako lankidetzari eskainitako aurrekontua % 0,7ra iritsi dadila.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a alcanzar el 0,7% del presupuesto dedicado a cooperación al desarrollo a lo largo de la presente legislatura.

Donostia, 2016ko uztailaren 15ª

Donostia a 15 de Julio de 2016

Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea".

Amaia Martin Garin
Portavoz del grupo municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Olaia Duarte Lopez andreak eta Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Amaia Martín Garín, D. José Luis Arrúe Pintó, Dª. Olaia Duarte López y D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

---------------

**II.2.8. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, hondartzetako kabinetara sartzeko aukera dela eta.**

“Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa, GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Hil honetan dagokion batzordean azaldu genuen bezala, Kirol Txartela duten pertsonen artean asko dira udaro kexa aurkezten dutenak, bide desberdinetatik, Donostiako hondartzetako kabinak doan erabiltzeko aukerarik ez dutelako. Gaur egun kabinak doan erabiltzeko aukera dago urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra eta, uda ondoren, urriaren 1etik abenduaren 31ra.

Herritarrek eskatzen dute ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean ere aukera izatea kabinetara sartzeko kirol txartelarekin. Herritar horien iritziz, hondartzako kabinak doan erabiltzeko aukera egon behar luke, edozein abonatuk kiroldegietako dutxak urte osoan

**II.2.8. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre el acceso a las cabinas de las playas.**

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la comisión de ESPACIO PUBLICO, OBRAS Y SERVICIOS URBANOS de este mes.

JUSTIFICACIÓN

Tal y como expusimos en la comisión correspondiente este mes, cada verano un número importante de personas que cuentan con la Kirol Txartela presenta, a través de medios diversos, quejas relativas a la imposibilidad de usar de manera gratuita las cabinas de las playas donostiarras. En la actualidad es posible utilizar las cabinas de manera gratuita del 1 de enero al 31 de mayo y, tras el verano, desde el 1 de octubre al 31 de diciembre.

La ciudadanía reclama la posibilidad de usar la Kirol Txartela para el uso de las cabinas también durante los meses de junio, julio, agosto y septiembre. Al igual que un abonado puede disfrutar de las duchas de los polideportivos durante todo el año, entienden

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

zehar erabil ditzakeen bezala.

Hori horrela, uste dugu zuzeneko nahiz zeharkako kudeaketapeko instalazioen funtzionamendua arautzen duen araudian atal bat gehitu behar litzatekeela hondartzei eta hondartzetako instalazioei buruz. Helburua da herritarrek beren eskubideak bermatuta ikustea udal instalazio guztietan eta formula erraz eta eraginkorrak ezartzea erabiltzaileekin komunikazio iraunkorra izateko, haiek guri beren kezkak helarazteko parte hartzearen kultura ezar dadin moduan.

Batzordean zinegotzi ordezkariak argudiatu zuen kirol txartelaren titularrek hondartzetako kabinak udan ere erabiltzeko aukera izanez gero, zitekeena zela kabinak gainezka egotea, baina horri buruz inolako datu edo informaziorik eman ez zuenez, ez dakigu konklusio hori datu kontrastatuen emaitza den edo uste subjektibo bat den.

Horiek horrela, aipatutako kexa horiek guztiak jaso ondoren, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio baimena eman dezala kirol txartelaren titularrak hondartzetako kabinetara urte osoan zehar doan sartzeko.

Donostia, 2016ko uztailaren 15a

que debiera permitirse el uso gratuito de las cabinas de la playa.

De esto modo entendemos que el reglamento que rige el funcionamiento tanto de las instalaciones de gestión directa como las de gestión indirecta contara con un apartado referido a las playas de la ciudad y las instalaciones que dependen de las mismas. El objetivo es que los ciudadanos y ciudadanas vean garantizados sus derechos en todas las instalaciones municipales, así como establecer fórmulas ágiles y accesibles para crear un vínculo de comunicación continuo con los usuarios y usuarias, de forma que se establezca una cultura de participación que haga que todos ellos nos transmitan sus inquietudes.

Gai horren harira, herritarrek kexa asko jartzen dituzte egunero kexen postontzien, hedabideen edo beste euskarri batzuen bidez, eta, gainera, udaltzain eta mugikortasun agente gehiago egoteko eskatzen dute arau-hauste horiek saihesteko, are gehiago aurten egin eta ageriko emaitzarik eman ez duten kontzientziazio kanpainen testuinguruan.

Son muchas las quejas que se recogen diariamente sobre esta cuestión por parte de los ciudadanos, a través de los buzones de quejas, los medios de comunicación u otros soportes y que, además, solicitan una mayor presencia de agentes de la Guardia Municipal o de Movilidad para evitar estas infracciones, más aún en el marco de las campañas de concienciación en las que llevamos inmersos el último año, sin resultados visibles.

Gure hiriak, azken urte hauetan, kontrolatzeko eta arauak aplikatzeko orduan, eta azken urteotan udal agintariek ez dute jakin nola kudeatu oinezkoen eta txirrindularien arteko bizikidetza hiri ingurunean.

Nuestra ciudad se ha caracterizado, desde hace años, por su laxitud a la hora de controlar los abusos y de aplicar la normativa frente a los comportamientos de algunos usuarios de la bicicleta que han tomado las aceras y otros espacios públicos sin respetar unas mínimas normas y las autoridades municipales, en los últimos años, no han sabido gestionar la necesaria convivencia entre peatones y ciclistas en el entorno urbano.

Mugikortasun Departamentuak bere web gunean ongi dioen moduan, bizikletak, ezaugarri bereziak izan arren, ibilgailuak dira, eta, beraz, oinezkoen, txirrindularien eta gainerako gidarien segurtasuna bermatuko duten zirkulazio neurri jakin batzuen arabera ibili behar dira.

Como bien dice el Departamento de Movilidad en su página web las bicicletas, aunque cuenten con características especiales, son vehículos y, por tanto, su uso está sometido a determinadas medidas de circulación que aseguren la seguridad de viandantes, ciclistas y resto de conductores.

Mugikortasun Departamentuak, hainbat kontzientziazio kanpaina egin ondoren, beharrezkotzat jotzen du zirkulazio diziplina areagotzea eta, oinarrizko zirkulazio arauak betetzen ez direnean, jarrita diren zigorrak aplikatzea.

El Departamento de Movilidad considera necesario, después de varias campañas de concienciación, incrementar la disciplina circulatoria y la aplicación de las sanciones establecidas en aquellos casos en que se incumplan nomas básicas de circulación.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Hala, lehen esandako batzordeak orain hurrena egindako bileran arazo horren gainean galdetu, eta erabat txikiagotu zituen bizikletazaleek gure hirian eragiten dituzten arazoak zinegotzi eskuordedunak, eta goraipatu hirugarren kontzientziatze kanpainaren emaitzak. Gure taldearentzat, ordea, beste gauza bat gertatzen da kalean, erabat beste aldekoa: egunero izaten dira herritarren kexak, elkarbizitza arazoak begi-bistakoak dira eta Udal Gobernuak ez die behar bezala erantzuten arazo horiei. Hori dela eta, hauxe da Talde Popularrak dakarren MOZIOA:

Interpelada la Concejala Delegada en la última Comisión, minimizó los problemas que generan las bicicletas en nuestra ciudad y alabó los resultados de la tercera campaña de concienciación. A entender de este Grupo político la realidad en la calle es otra bien distinta. Las quejas de los ciudadanos son diarias, los problemas de convivencia son evidentes y el Gobierno Municipal no da respuesta a los mismos como debiera, por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu Taldeari eskatzen die lehenbailehen prestatu eta banatzeko bizikletan ibiltzen direnei —Gobernu Talde hau urtebetean egiten ari den hirugarren kanpainaren barruan — bizikletan ibiltzeko diren arauak azaltzen dituen esku-orri bat, zer arau diren jakin dezaten bizikletazaleek.

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que proceda, a la mayor brevedad, a la realización y reparto entre los usuarios de bicicleta de unos folletos explicativos de la normativa afecta para su conocimiento por parte de los usuarios, dentro de la tercera campaña de concienciación en un año que lleva el presente Equipo de Gobierno.

2.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu Taldeari eskatzen die Mugikortasuneko agente eta udaltzain gehiago ateratzeko gure kaleetara —Gobernu Taldeak irailaren 25era arte egingo duen hirugarren kontzientziatze kanpainaren horren baitan—, bizikletan ibiltzen denak bete behar dituen arauak betearazi eta arauen kontrako jokabideak zuzentzeko.

2.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que proceda a incrementar la presencia de agentes de Movilidad y de la Guardia Municipal en nuestras calles para hacer cumplir la normativa que afecta a los usuarios de las bicicletas en nuestra ciudad, y corregir aquellas conductas contrarias a la misma, en el marco de esta tercera campaña de concienciación puesta en marcha por el Equipo de Gobierno hasta el próximo 25 de septiembre.

3.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu Taldeari eskatzen die Mugikortasuneko Departamentuaren aholkuei

3.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que proceda a seguir los consejos

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

kasu egin, zirkulazio diziplina handiagoa jarri eta tokatzen diren zigorrak jartzeko zirkulazio arau oinarrizkoak hausten direnean, batez ere orain den Gobernu Taldeak irailaren 25era arte bizikletazaleak kontzientziatzeko egingo duen hirugarren kanpaina hori bukatzen denetik aurrera.

del Departamento de Movilidad, e incrementar, así, la disciplina circulatoria y la aplicación de las sanciones establecidas en aquellos casos en que se incumplan normas básicas de circulación; sobre todo, una vez acabada la tercera campaña de concienciación para biciletas, puesta en marcha por el actual Equipo de Gobierno hasta el próximo 25 de septiembre.

4.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu Taldeari eskatzen die urrirako aurkezteko Mugikortasuneko Departamentuaren txostena bat, azkeneko urtebete honetan bizikletazaleak kontzientziatzeko egingo diren hiru kanpainen ondorioak izan, ebaluatu eta, horien argitan, oinez, bizikletan eta beste ibilgailu batzuetan ibiltzen direnen elkarbizitza hobetzeko hartu beharrekotzat jotako neurriak hartzeko.

4.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, para el mes de ocubre, presenten un informe realizado por el Departamento de Movilidad con las conclusiones de los resultados de las tres campañas de concienciación para bicicletas que se vienen realizando en el último año, con el fin de evaluar las mismas, y tomar las medidas que se hayan revelado necesarias para avanzar en la mejora de la convivencia entre peatones, bicicletas y otros vehículos en nuestra ciudad.

Donostian, 2016ko uztailaren 15ean.

En Donostia/ San Sebastián, a 15 de Julio de 2016

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea”.

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular”.

Eztabaida hasita, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Loïc Alejandro jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. José María Murguiondo Casal, D. Loïc Alejandro y Dª. Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**21. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 21:**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

**21. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 21:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 5 – (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 5 – (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**21. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 21:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.
AURKAKO BOTOAK: 21 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU.
ABSTENTZIOAK:2 – IRABAZI DONOSTIA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 3 – PP.
VOTOS EN CONTRA: 21 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU.
ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.

**21. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 21:**

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

---------------

**II.2.22. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Donostian motoak uzteko tokiaren gainekoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta hiri zerbitzuak) 2016ko uztailaren 11n izan zuen bileran Donostian motoak uzteko tokiez egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Lasala plazan izango den hotela egiteko obrak direla eta, Mari kalean motoentzako ziren aparkalekuen erdiak kendu egin dituzte, eta baita Sokamuturra etxartean ziren guzti-guztiak ere. Horrez gainera, portuko gune erreserbatuan, Eusko Jaurlaritzak arautzen duen tokian, ontziralekuaren ondoan, izozkiak saltzeko postu bat jarri dute, eta beste 7 aparkaleku kendu dituzte handik ere.

Eta gure Udalak toki horretan aginpiderik ez badu ere, guk uste dugu zinegotzi ordezkariak gestioren bat-edo egin zezakeela izozkiak saltzeko postua beste toki batean jartzeko. Lasala plazako hoteleko lanek bi urte-edo iraungo dute, eta Mugikortasun Sailak ez du ezeren neurririk hartu haren ingurutik kendutako aparkaleku horien ordezko beste batzuk jartzeko nonbait.

**II.2.22. Moción de control presentada por el Grupo PP relativa a las plazas de aparcamiento para motos en San Sebastián.**

“Doña Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos, celebrada el día 11 de Julio de 2016, relativa a las plazas de aparcamiento para motos en San Sebastián.

JUSTIFICACION

Con motivo de las obras del futuro hotel de la Plaza de Lasala se han suprimido la mitad de las plazas de aparcamiento para motos de la calle Mari y se han suprimido, por completo, las plazas del callejón Sokamuturra. Además, en la zona reservada en el Puerto -espacio regulado por el Gobierno Vasco-, junto al embarcadero se ha colocado un puesto de venta de helados que ha llevado a la supresión de otras 7 plazas de aparcamiento para motos.

A pesar de no ser este espacio competencia de este Ayuntamiento, consideramos que la Concejal Delegada podría haber hecho alguna gestión para corregir el emplazamiento de este puesto de venta de helados. Las obras del hotel de la Plaza de Lasala van a tener una duración de unos dos años y no se ha tomado ninguna medida, por parte del Departamento de Movilidad, para compensar la supresión de las plazas de aparcamiento para motos.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Ekainean hasi ziren aparkaleku horiek kentzen, eta oraindik ere ez dute ezeren neurririk hartu ez handik kendutakoen ordainetan beste batzuk jartzeko, ez eta gure udalerrian —batez ere zenbait puntutan— motoak uzteko den toki falta berdintzeko ere.

Desde comienzos del pasado mes de junio, en que se procedió a la supresión de las plazas citadas, no se ha tomado, a día de hoy, ninguna medida que compense la eliminación de plazas ni la falta de espacio de aparcamiento para motos que adolece nuestra ciudad; sobre todo en determinados puntos.

Gune Publikoen Batzordeak orain hurrena izan zuen bileran Mugikortasuneko zinegotzi eskuordedunari horren inguruan galdetu eta erantzun ziguten ari direla inguruko toki batzuk begiratzen, motoak uzteko beste toki batzuk izateko. Dena dela, irtenbiderik ageri ez denez eta hainbeste inprobisaziok gure hiriko moto zaleentzat dakartzan ondorioak zuzentzeko asmoz, hauxe da Talde Popularrak dakarren MOZIOA:

Interpelada la Concejal Delegada de Movilidad en la pasada Comisión de Espacio Público, se contesta a esta parte que se están analizando algunas zonas próximas para instalar aparcamiento alternativo para las motos. Ante la falta de soluciones, y con el ánimo de corregir los defectos que tanta improvisación a los usuarios de motos en nuestra ciudad, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

1.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta gobernu taldeari eskatzen die ahalik eta azkarren jartzeko motoak hizpide dugun inguruan uzteko moduko beste toki batzuk, Lasala plazan izango den hotela egiteko obrak direla eta kendu dituzten aparkalekuen ordezko beste batzuk izateko.

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que habilite, a la mayor brevedad, espacios alternativos para aparcamiento de motos en el entorno que palíen la supresión de plazas originada por las obras que se están realizando para la construcción del futuro hotel en la Plaza de Lasala.

2.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta gobernu taldeari eskatzen die hurrena udalerrian beste obra edo berritze lanen batzuk egin behar direla-eta aparkaleku batzuk denbora dezentean kenduta izan behar direnean, aurrez ateratzeko kontuak eta kendutako aparkaleku horien ordezko batzuk pentsatuta izateko.

2.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, cuando haya que proceder a eliminar plazas de aparcamiento debido a obras o intervenciones de mejora en algún punto de la ciudad con una extensión prologanda en el tiempo se prevean, con antelación, ubiaciones alternativas para compensar la pérdida de dichas plazas de aparcamiento.

Donostian, 2016ko uztailaren 15ean.

En Donostia/ San Sebastián, a 15 de Julio de 2016

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea”.

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular”.

Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 24 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 24 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

---------------

**II.2.23. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, espazio estaliak aztertu eta proposatzeko batzorde teknikoaren lanari buruzkoa.**

“Ricardo Burutaran Ferré EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIOA aurkezten du, Espazio Estaliak Aztertu eta Proposatzeko Batzorde Teknikoaren lana dela-eta, Udalbatzan azter dadin. Mozio hau joan den uztailaren 11n Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Azken urteotan, espazio estaliak izateko herritarren eskaerak gora egin du. Bizilagunen elkarteak, izan ere, behin eta berriro ari dira

**II.2.23. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre el trabajo de la comisión técnica para el estudio y propuesta de espacios cubiertos.**

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno sobre el trabajo de la comisión técnica para el estudio y propuesta de espacios cubiertos. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en Comisión el pasado 11 de julio.

JUSTIFICACIÓN

En los últimos años ha crecido la demanda ciudadana de espacios cubiertos. Efectivamente, la demanda de este tipo de

eskatzen gisa horretako doaneko espazio estaliak.

espacios gratuitos cubiertos se está convirtiendo en una petición constante por parte de las asociaciones de vecinos.

Eskaera horiei erantzuteko asmoz, hainbat udal ekimen aurkeztu, eta Arrobitxuloko parkekoa aurrera eraman da. Halere, eskaera horiei guztiei banan-banan erantzuteaz harago, hiri osoa hartuko duen plan espezifiko bat egin behar dela uste dugu.

Para intentar satisfacer estas demandas, se han presentado varias iniciativas municipales, habiéndose materializado la del parque de Arrobitxulo. Sin embargo, entendemos que más allá de satisfacer de forma aislada estas demandas, se encuentra la necesidad de elaborar un plan específico para toda la ciudad.

Zentzu horretan, 2015eko uztailaren 24an, lan talde bat eratzea proposatu genuen, hiri osoan horrelako espazio estalien beharra aseko lituzketen proposamenak aztertzeko eta adierazteko. Gobernu taldeak ez zion egoki iritzi aipatutako taldearen sorrera onartzeari.

En este sentido, el 24 de julio de 2015 presentamos la proposición de creación de un grupo de trabajo que estudiase y formulase propuestas que dieran respuesta a la necesidad de este tipo de espacios cubiertos en toda la ciudad. El equipo de gobierno no entendió oportuno admitir la creación del citado grupo de trabajo.

Gero, 2015eko irailean, “Espazio estaliak aztertzeko eta proposatzeko batzorde ez iraunkor bat” sortzeko proposamena aurkeztu genuen. Batzorde hori udal talde bakoitzeko ordezkari banak osatua egongo zen, eta, jakina, bizilagunen elkarteei horretan laguntzeko eta parte hartzeko aukera emango zitzaien.

Posteriormente, en septiembre de 2015 presentamos la propuesta para la creación de una “Comisión no permanente para el estudio y propuesta de espacios cubiertos”; la citada comisión estaría formada por una persona en representación de cada grupo municipal; estando lógicamente abierta, a la colaboración y participación activa de las distintas asociaciones vecinales.

Herritarren parte hartzerako foro ireki hori sortzeko proposamenaren aurrean, gobernuak aipatutako gaia aztertzeko lanerako talde tekniko bat sortu zuen, non ez zeuden udal talde guztiak ordezkatuta eta bizilagunen elkarteei ez zitzaien gonbidapen bidez joateko aukera eman.

En respuesta a la propuesta de creación de este foro abierto a la participación de la ciudadanía, se nos contestó por parte del gobierno con la creación de un grupo de trabajo técnico (sin presencia de todos los grupos del Ayuntamiento y sin asistencia por invitación de las asociaciones vecinales) que trabajaría en torno a la citada cuestión.

Pentsatzekoa denez, horrelako erabaki baten ondorioz, informazio gutxi jasotzen ari gara

Obviamente, tal decisión está suponiendo un menor acceso a la información sobre el trabajo

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

talde tekniko hori egiten ari den lanari buruz eta, ziur asko, eskakizun maila txikiagoa da, lan horiek egiteko konpromisoak hartzeari begira.

Zinegotzi ordezkariari galdetu genion Batzordeak egindako lanaz, eta Hirigintza Sostengagarriko ordezkariak erantzun zigun ordura arte bilera bat baino ez zuela egin. Hitz eman zigun espazio estali izan daitezkeen tokien zerrenda bidaliko zigula, baina, kontrol mozio hau aurkezten dugun egunean, oraindik zain gaude.

Horrenbestez, kontuan hartuta egin beharreko lanaren garrantzia, doaneko espazio estali horien eskaera handia eta oposizio taldeen nahiz bizilagunen elkarteen presentziarik eza, honako KONTROL MOZIOA aurkeztea beste aukerarik ez dugu

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari doneko espazio estaliak jartzeko bere proposamenak aurkezteko bizilagunen elkarteei eta udal talde politikoei, bai eta zerikusia duten eragileekin proposamen horiek adosten saiatzeko ere.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari ekintza-kronograma bat sortzeko, auzo guztietan doako espazio estali bat, gutxienez, pixkanaka jarriz joateko, eta, hortaz, aurrekontu-zirriborroetan kontuan hartzeko asmo hori.

3.- Halaber, hertsatuki eskatzen zaio gobernu taldeari, auzoak aisialdirako espazio estali bat,

que se está realizando por dicho grupo técnico, y previsiblemente un menor grado de exigencia en cuanto a los compromisos a asumir en la ejecución de los mismos.

Preguntado el concejal delegado por el trabajo realizado por la comisión, el delegado de Urbanismo Sostenible nos contestó que se había reunido, hasta la fecha, en una única ocasión; y se comprometió a enviarnos un listado de espacios susceptibles para implantación de espacios cubiertos, algo que no ha hecho hasta, al menos, la fecha de presentación de la presente moción de control.

Pues bien, teniendo en cuenta la indudable importancia del trabajo a realizar, la alta demanda existente de este tipo de espacios cubiertos gratuitos, la total ausencia de los grupos de la oposición y de las asociaciones vecinales, es por lo que nos vemos en la obligación de presentar la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a presentar tanto a las asociaciones vecinales como a los grupos políticos municipales sus propuestas susceptibles de implantar espacios cubiertos gratuitos, y a tratar de consensuarlas las mismas con los agentes implicados.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a elaborar un cronograma de actuaciones a ejecutar para ir paulatinamente extendiendo en todos los barrios, al menos, un espacio cubierto gratuito; y consecuentemente a tenerlo en cuenta en los borradores presupuestarios respectivos.

3.- Se insta del mismo modo al equipo de gobierno a que, mientras el barrio no cuente

gutxienez, ez duen bitartean, akordioetara iristen saiatzeko, espazio publikoak erabili ahal izan daitezen, hala nola, ikastetxe publikoetakoak –haur, lehen nahiz bigarren hezkuntzako ikastetxeetakoak–, bai eta bestelakoak ere.

San Sebastián, 15 de julio de 2016

Izpta.: Ricardo Burutaran Ferré,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

con al menos un espacio de esparcimiento cubierto, se trate de alcanzar los acuerdos que permitan utilizar espacios públicos como los de los colegios públicos, ya sean de infantil, primaria o secundaria, u otros.

En Donostia a 15 de julio de 2016.

Fdo.: Ricardo Burutaran Ferré
Concejal del Grupo Municipal de EH BILDU".

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Enrique Ramos Vispo jaunak eta Loïc Alejandro jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Ricardo Burutarán Ferré, D. Enrique Ramos Vispo y D. Loïc Alejandro, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 2 – PP.**

---------------

**II.2.24. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, harrera protokoloa dela eta.**

"Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau

**II.2.24. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre el protocolo de acogida.**

"Naiara Sampedro Perez, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta

aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko uztailaren 11n Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da

JUSTIFIKAZIOA

2015eko maiatzean, Herritar Berrien Harrera Protokoloa azken balorazio fasean sartu zen. Ordurako, Intxaurrondo eta Grosen harrera guneak martxan jartzen ari ziren eta alkatearen harrera ekintza ere egiten zen. Urte bereko urriko batzordeetan, alkateak berak baieztatu zigun aurrera jarraituko zuela horrekin, harrera ekintza bezalako ekimenak Udal Gobernuarentzat oso garrantzitsuak zirelako eta Harrera Protokoloak ere garrantzi handia zuelako.

2016eko otsailean, Kultur Aniztasun politiketarako izendatutako zinegotzi ordezkariak adierazi zigun gobernuak oraindik ere ez zuela protokoloaren balorazioarekin amaitu eta jakinaraziko zitzaigula. Modu berean adierazi zigun alkatearen harrera ekintzak ez zuela aurreikusitako harrera jaso eta proposamen berri bat lantzen ari zirela.

2016ko apirilaren 27ko udalbatzan, aho batez, arrazakeria eta xenofobiaren kontrako politika bateratuak bermatzea erabaki zen.

Uztaileko batzordeetan adierazi zitzaigunaren baitan, protokoloa ez da berdin mantenduko. Aldaketak daude eta programa berriak txertatuko dira. Pozgarria da jakitea protokoloa garatzen ari dela, baina ez dugu garapen

la siguiente moción, para que sea tratada en el Pleno Municipal. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas celebrada el 11 de julio de 2016.

JUSTIFICACIÓN

En mayo de 2015, el Protocolo de Acogida a las personas recién llegadas a San Sebastián entró en la última fase de valoración. Para entonces, se estaban poniendo en marcha los puntos de acogida de Intxaurrondo y Gros, y también se llevaba a cabo el acto de bienvenida del alcalde. En las comisiones de octubre del mismo año, el propio alcalde nos confirmó que se seguiría adelante con este trabajo, puesto que iniciativas como la acogida son muy importantes para el Gobierno Municipal, y también lo es el Protocolo de Acogida.

En febrero de 2016, la concejala delegada designada para las Políticas de Diversidad Cultural nos comunicó que el Gobierno todavía no había finalizado con la valoración del protocolo y que se nos comunicaría cuando así fuera. También nos dijo que el acto de bienvenida del alcalde no había tenido la aceptación esperada, y que estaban trabajando en una nueva propuesta.

Por otro lado, en el Pleno Municipal celebrado el 27 de abril de 2016, se adoptó por unanimidad el acuerdo de garantizar políticas unificadas contra el racismo y la xenofobia.

Según se nos comunicó en las comisiones del mes de julio, el protocolo no va a ser como hasta ahora. Hay algunos cambios, y se insertarán nuevos programas. Nos alegra saber que el protocolo se está desarrollando, pero no

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

horren inguruko inolako informaziorik (nahiz eta, esan bezala, Udalbatzak onartu zuen apirilean eremu honetan politika bateratuak bermatzea).

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2017ko aurrekontu proiektua aurkeztu aurretik, Udalbatza osatzen dugun taldeekin herritar berrien harrera protokoloaren inguruko balorazioa eta programa berrien inguruko informazio zehatza -bilera baten bitartez- azaltzea eta elkarlanean proposamenak kontrastatu ahal izateko aukerak bideratzea.

Donostian, 2016eko uztailaren 15ean

Naiara Sampedro Perez
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

tenemos ninguna información sobre este desarrollo (a pesar de que, como ya hemos dicho, el Pleno Municipal acordó en abril garantizar la existencia de políticas unificadas en este ámbito).

Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta la siguiente moción de control:

MOCIÓN DE CONTROL

- El Pleno Municipal insta al Gobierno Municipal a que, antes de presentar el proyecto de presupuestos de 2017, exponga, en una reunión con los grupos que formamos el Pleno, la valoración del protocolo de acogida a los nuevos y nuevas ciudadanas y la información detallada sobre los nuevos programas, además de canalizar posibilidades de contrastar las distintas propuestas mediante el trabajo en equipo.

San Sebastián, 15 de julio de 2016

Naiara Sampedro Perez,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Naiara Sampedro Perez andreak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak, Amaia Martin Garin andreak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as Dª. Naiara Sampedro Peréz, Dª. Duñike Agirrezabalaga Ugarte, Dª. Amaia Martín Garín y D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

---------------

**II.2.25. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, gehiegizko soinu maila ekiditeko neurriak direla-eta.**

“Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko ekainaren 20an Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2011etik aurrera egin ziren prozesu parte hartzaileetan, auzoetako bizilagunek aukera izan zuten beren kezka nagusiak azaldu eta garrantziaren arabera hurrenkeran proposamen kolektiboak jartzeko.

Laburki, aipa daiteke, gune publikoen okupazioa kezka handienetakoa izanik, Parte Zaharreko bizilagunek biziki eskatu zutela atsedena eragoz zezakeen jarduera berririk ez egiteko, bertan garatzen den egitaraua oso betea baitago: “Plazak ere noiznahi saturatuta daude, beste arrazoi batzuen artean jaiak hemen egiten direlako” zioten orduko diagnostikoan.

**II.2.25. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre las medidas para evitar el nivel de ruido excesivo.**

“Olaia Duarte Lopez, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción para que sea tratada en Pleno. La moción es consecuencia de la interpelación realizada en la Comisión de Servicios a las Personas del 20 de junio de 2016.

JUSTIFICACIÓN

Durante los procesos participativos desarrollados a partir de 2011 los vecinos/as de los distintos barrios pudieron exponer los asuntos que más les preocupaban, canalizados mediante propuestas colectivas ordenadas según el grado de importancia.

Una de las preocupaciones más reiteradas era la de la ocupación del espacio público, y concretamente los vecinos/as de la Parte Vieja reclamaron que no se programaran nuevas actividades que pudieran entorpecer sus horas de descanso, un barrio que soporta durante todo el año una programación festiva ya de por sí muy completa: “Las plazas del barrio están saturadas, entre otras razones porque son los lugares donde se desarrollan las actividades festivas”, señalaba el diagnóstico llevado a cabo.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Kultura jarduerak auzoetara eramateko konpromisoari eutsita, programazioak aldatzen hasi ziren 2012tik aurrera eta Jazzaldia, Hamabostaldia, Zinemaldia eta abar hala joan dira garatzen. Hala ere, Parte Zaharreko egoera orokorra are gehiago aldatu beharko zen ohiko jaiei dagokienez, bizilagunen atsedena hobeto ziurtatze aldera.

Cumpliendo el compromiso de trasladar las actividades culturales a distintos barrios de la ciudad, a partir de 2012 se empezaron a modificar las programaciones de los eventos culturales que se llevan a cabo a lo largo del año (Jazzaldia, Quincena Musical, Zinemaldia, etc.). No obstante, es necesario profundizar aun más en los cambios para mejorar la situación general de la Parte Vieja en cuanto a actividades festivas, con el fin de garantizar el descanso de sus vecinos/as.

2016ko programaren egitarauak ekimen berriak ekarri dituenez, aurtengo saturazioa areagotu egin da, eta, beraz, bizilagunen eskakizuna guztiz indarrean dago. Halaber, Udal Gobernuak nabarmendu du gobernantza gardena eta parte hartzailea egiteko bere nahia, bizilagunen beharrak eta eskaerak entzunez.

Dado que la programación del 2016 ha multiplicado el número de actos de todo tipo, los vecinos/as de la Parte Vieja tienen fundadas razonas para reclamar medidas contra la saturación que sufre su barrio. Por su parte, el Gobierno Municipal ha ratificado su voluntad de desarrollar un modelo de gobernanza participativo y transparente que responda a las demandas y necesidades de la ciudadanía.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Maiatzaren 26ko hedabide idatziek jaso zuten informazioaren arabera, 51. Jazzaldiak babesle baten gune berri bat iragarri zuen, Konstituzio plazan. Babesle horren gunea, aldiz, ez da berria, aurreko urteotan beste hainbat lekutan egon izan delako eta, Parte Zaharreko bizilagunen eskakizunen kontrako erabakiaren aurrean, Alfonso Gurpegui Ruiz jaunari, Gune publikoetakoa zinegotzi ordezkaria denez, Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean azalpenak emateko interpelazioa egin genion.

Según noticia publicada el 26 de mayo en la prensa escrita, uno de los patrocinadores de la 51 Jazzaldia contará con un nuevo escenario en la Plaza de la Constitución. Dicho escenario no es nuevo, ya que en años precedentes ha tenido distintas ubicaciones, y en vista de esta iniciativa que va en contra de la voluntad de los vecinos/as de la Parte Vieja, presentamos una interpelación en la Comisión de Servicios a las Personas dirigida al concejal delegado de espacios públicos Alfonso Gurpegui Ruiz.

Batzordean Kulturako zinegotziak eman zituen azalpenen arabera, gunea proba fasean jarri eta soinua zaindu eta ordutegiak gauerdira arte luzatzeko asmoak agertu zituen.

Según explicaciones dadas por la concejala de cultura en dicha comisión, está previsto situar el escenario en la plaza a modo de prueba, se controlará el nivel de ruido y el horario de los conciertos se prolongará hasta media noche.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Uztailaren 13an Parte Zaharrean Bizi auzo elkarteak erregistratu duen dokumentuaren bitartez, Udalari eskatzen dio ofiziozko neurri eraginkorrak har ditzan Jazzaldian eta bestelako kontzertu eta musika-emanaldietan gehiegizko soinu-maila ekiditeko. Idazki horretan bertan ere diotenez, auzoko plazetan (Trinitate Plaza, Konstituzio Plaza...) gero eta musika-emanaldi gehiago antolatzen dira; musika-emanaldi horiek, maiz, berandu arte luzatzen dira, eta, askotan, inguruko etxeetan soinu-maila oso altua (Legez onartutakoaren gainetik, gehien-gehienetan) eragiten dute, Udaltzaingora deitzeak ez du arazoa konpontzen eta, sonoritateari dagokionez, Parte Zaharreko kale eta plazek problematika larria dute berariazko ezaugarriak dituztenez (hala frogatu zen 2014-15ean egindako ikerlanean).

El documento registrado el 13 de julio por la asociación de vecinos Parte Zaharrean Bizi reclama al Ayuntamiento la adopción de medidas de oficio eficaces para evitar niveles excesivos de ruido durante los conciertos del Jazzaldia y demás eventos musicales. Tal como se señala en dicho documento: “Las plazas del barrio (Trinidad, Constitución…) acogen un número cada vez mayor de eventos musicales, que a menudo finalizan tarde y generan niveles de ruido altos en las viviendas de los alrededores (niveles que casi siempre superan lo legalmente permitido). Llamar a la Guardia Municipal no soluciona el problema, y las calles y plazas de la Parte Vieja dada sus características específicas tienen un grave problema de sonoridad, tal como se demostró en el estudio llevado a cabo en 2014-15”.

Bestetik, aurkeztutako txostenean, Parte Zaharrean Bizi auzo elkarteak hurrengo neurriak azter eta ezarri daitezela eskatzen dio Udal Gobernuari:

Por otro lado, el informe presentado por Parte Zaharrean Bizi solicita al Gobierno Municipal el estudio e implantación de las siguientes medidas:

1,- Parte Zaharreko plazetan egun baino kontzertu eta musika-emanaldi gutxiago egingo direla ziurtatzea (gaur-gaurkoz bertan egiten diren batzuk hiriko beste plaza batzuetara eramanda).

1.- Disminuir el actual número de eventos musicales que se llevan a cabo en las plazas de la Parte Vieja, trasladándolos a otros lugares de la ciudad.

2,- Parte Zaharreko plaza eta kaleetan kontzertuak eta antzekoak egiteko baimena ematen duenean, ez duela baimenik emango anplifikadoreak erabiltzeko, gehienezko soinu-maila zehaztuz.

2.- No autorizar la utilización de amplificadores y limitar los niveles excesivos de ruido en los permisos que se conceden para conciertos y eventos musicales en las plazas y calles de la Parte Vieja.

3,- Parte Zaharreko plaza eta kaleetan kontzertuak eta antzekoak egiteko baimena ematerakoan, anplifikadoreak erabiltzea ezinbestekoa balitz, salbuespenari dagozkion neurriak hartuko dituela eta neurriok

3.- En caso de ser necesaria la utilización de amplificadores, adoptar medidas excepcionales y garantizar la eficacia de las mismas para que no se supere el nivel de ruido máximo permitido por ley. Dichas medidas

eraginkorrak izango direla legez onartutako soinu-maila gainditu ez dadin etxebizitzetan. Besteak beste, neurri hauek:

a- Udal Gobernuak dagozkion barne-prozedurak egin edo aldatuko ditu, Udalak ematen dituen baimenetan 1) argi islatu dadila zein den anplifikatze-sistemak emiti dezakeen gehieneko bolumen-maila; eta 2) ez dadin inoiz baimenik eman, soinu-muga zein den zehaztu gabe.

b- Udal Gobernuak konpromiso irmoa hartzen du aurkitzeko eraikuntza publikoetan (adibidez, San Telmo Museoaren atzealdean, Trinitate Plazara ematen duen aldean; Udaletxe eta Liburutegi Zaharrean Konstituzio Plazara ematen duen aretoren batean) jar daitekeen neurketa-sistemaren bat etxebizitzetan eragiten den soinu-maila zenbatekoa den jakiteko. Neurketa-sistema horrek etxebizitzetan onartuta dagoen gehieneko soinu-maila gainditzen denean abisua emateko gaitasuna izan beharko luke.

c- Udal Gobernuak ziurtatuko du soinu-maila gainditzen den kasuetan, udaltzainak berehala joango direla, anplifikatze-sistema kontrolatzeko mahaira eta bolumena jaitsi dezatela aginduko dutela.

d- Udal Gobernuak ziurtatuko neurriak hartuko dituela, arau-haustea emanaldi berean hainbat alditan errepikatuz gero, baimenean ezarritako neurriak har daitezela eta

excepcionales serían:

a- El Gobierno Municipal adaptará o modificará los procedimientos internos para la concesión de permisos del Ayuntamiento, con un doble objetivo: 1) especificar claramente el nivel de volumen máximo permitido a los sistemas de amplificación; y 2) especificar siempre el límite de nivel ruido en todos los permisos.

b- El Gobierno Municipal se comprometerá firmemente a encontrar algún sistema de medición que pueda situarse en edificios públicos (trasera del Museo San Telmo, antiguo ayuntamiento y biblioteca, en alguna de las salas que dan a la Plaza de la Constitución, etc.), para medir el nivel de ruido que soportan las viviendas de la zona. Dicho sistema debería estar dotado de algún método de aviso para cuando se supere el nivel de ruido máximo permitido en viviendas.

c- El Gobierno Municipal garantizará la presencia inmediata de la Guardia Municipal cuando se supere el nivel de ruido permitido, para que ordenen bajar el volumen a la mesa de control del sistema de amplificación.

d- Cuando en un concierto se produzca más de una infracción, el Gobierno Municipal adoptará las medidas previstas en el permiso, incluido la suspensión del concierto.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

emanaldia bertan behera utziko dela.

4,- Beharrezko kudeaketak egin daitezela aurtengo Jazzaldiko ekitaldietan limitazioak ezartzeko.

5,- Salbuespenezko egoerak, soilik, oso arrazoi sendo-sendoak daudelako eta auzoarekin lotura argia duten ekitaldi klasikoetan (San Sebastian Festa, Auzoko Jaiak, Euskal Jaiak...) joko direla.

Beraz, ez dirudi esperimentuak egiteko giroa dagoenik, kontrakoa baizik, neurriak hartzeko beharra nabarmen da auzotarren aldetik. Eta neurriok, bizilagunek beraiek proposatzen dutenei heltzea, egokia dela sinetsita, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziaren MOZIOA:

1. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Parte Zaharrean Bizi elkarteak aurkeztutako neurri eta proposamenak azter ditzala, azterketa horren ondorioak elkartearekin partekatuz, eta horren araberako neurri eraginkorrak har ditzala.

2. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2012. urtean Kultura jarduerak auzoetara eramateko konpromisoari eutsita hasi zen deszentralizazio prozesuarekin jarraitzeko.

3. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari beharrezko kudeaketak egin ditzala aurtengo Jazzaldiko ekitaldietan zarataren aurkako neurri eraginkorrak ezartzeko.

Donostian, 2016ko uztailaren 15ean

Olaia Duarte López

4.- Llevar a cabo las gestiones necesarias para implantar las limitaciones en la edición del Jazzaldia de este año.

5.- Las situaciones excepcionales solo se permitirán por razones sólidas y en eventos estrechamente relacionados con el barrio (San Sebastian, fiestas del barrio, Euskal Jaiak…).

Por tanto, los vecinos/as de la Parte Vieja no están para experimentos, sino para todo lo contrario, y exigen adoptar medidas eficaces, y con el convencimiento de que deben adoptarse las medidas propuestas por los vecinos/as, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN:

1. El Pleno insta al Gobierno Municipal a analizar las medidas propuestas y presentadas por la asociación Parte Zaharrean Bizi, compartir sus conclusiones con dicha asociación, y adoptar las medidas eficaces que se consideren oportunas.

2. El Pleno insta al Gobierno Municipal a continuar con el proceso de descentralización iniciado en el 2012 para trasladar eventos culturales a distintos barrios de la ciudad.

3. El Pleno insta al Gobierno Municipal a realizar gestiones oportunas para que en la edición de este año del Jazzaldia se adopten medidas eficaces contra el ruido.

San Sebastián, a 15 de julio de 2016

Olaia Duarte López,

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Amaia Martin Garin andreak, Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak eta Miren Azkarate Villar andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as Dª. Olaia Duarte López, Dª. Amaia Martín Garín, D. Alfonso Gurpegui Ruiz y Dª. Miren Azkarate Villar, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 22 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 22 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

---------------

**II.2.26. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Altza pasealekuko 20-22 komunitateekin hitzarmenaren ingurukoa.**

“Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, Altza pasealekuko 20-22 komunitateekin hitzarmenaren inguruko MOZIO hau aurkezten du, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Gune Publikoetako Batzordean 2016ko uztailaren 11ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Iaz onartutako inbertsio planean, Udalbatzak Altza pasealekuko 20-22 komunitateekin

**II.2.26. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre el convenio con las comunidades del Paseo de Altza 20-22.**

“Josu Mirena Ruiz Martin, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN sobre el convenio a suscribir con las comunidades de los números 20 y 22 del Paseo de Altza, para que sea tratada en Pleno. La moción es consecuencia de la interpelación realizada en la Comisión de Espacios Públicos del 11 de julio de 2016.

JUSTIFICACIÓN

Gracias a una enmienda de EH Bildu el plan de inversiones aprobado el año pasado por el

59.950 euroko diru-laguntzarekin hitzarmen bat egitea onartu zuen, EH Bilduren zuzenketari esker, merkataritza galerietako itoginak behingoz konpontzeko. Gure harridurarako, merkatariek, Udal Gobernuko ordezkariekin egon eta gero, hitzarmeneko diru kopurua itoginak kentzeko ez dutela erabiliko esan digute haserre bizian.

Pleno incluía una ayuda de 59.950 euros para la firma de un convenio con las comunidades de los números 20 y 22 del Paseo de Altza, con el fin de dar una solución definitiva a las goteras y filtraciones de las galerías comerciales de la zona. Tras una reunión celebrada con representantes del Gobierno Municipal, los/as comerciantes de la zona nos han informado indignados que la ayuda prevista para el convenio no será utilizada para la eliminación de las goteras.

Inbertsio plana EAJ-PSE eta EH Bilduren arteko akordioa izan zen. Beraz bete egin behar da, eta Udal Gobernuak bere hitza bete dezan, lan egingo dugu. Hala ere, plana onartu zenetik urtebete joan denean, ulergaitza da egoera hau.

El plan de inversiones fue acordado entre EAJ-PSE y EH Bildu. Debe ser cumplido y trabajaremos para que el Gobierno Municipal cumpla su palabra, ya que la situación es insostenible, habida cuenta de que ha transcurrido un año desde la aprobación del plan.

Zinegotzi ordezkariak, batzordean, atzerapenak eman direla onartu zuen, baina hitzarmena lehenbailehen mahai gainean jarriko zuela adierazi zuen. Ez zuen xehetasun gehiagorik eman, ordea.

El concejal delegado admitió en la comisión que se habían producido retrasos, pero insistió en que el convenio estaría sobre la mesa lo antes posible. Sin embargo, no aportó más detalles.

Hori dela-eta, behean sinatzen duen zinegotziak honako mozio hau aurkezten du:

Consiguientemente, el concejal abajo firmante presenta la siguiente moción:

MOZIOA

MOCIÓN

1- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Altza pasealekuko 20-22 komunitateekin akordioa lehenbailehen itxi dezala eta hitzarmenean 59.950 euroko diru-laguntza argi jaso dadila.

1- El Pleno insta al Gobierno Municipal a cerrar lo antes posible el acuerdo con las comunidades de los números 20 y 22 del Paseo de Altza y hacer constar claramente la ayuda de 59.950 euros en el convenio.

Donostian 2016eko uztailaren 15ean

San Sebastián, a 15 de julio de 2016

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Josu Mirena Ruiz Martin,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Miguel Angel Diez Bustos jaunak eta Loïc Alejandro jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Josu Ruiz Martín, D. Miguel Ángel Díez Bustos y D. Loïc Alejandro, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

---------------

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**II.2.27. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, merkataritzaren ingurukoa.**

“Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, Merkataritzako Aholku Kontseiluari buruzko MOZIO hau aurkezten du, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2016ko uztailaren 11ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko azaroren 9an, Merkataritzako Aholku Batzordeak bilera egin zuen, eta kontseilu hartan ez zen Garberaren zabalkundeari buruzko xehetasunik eman. Duela egun batzuk, Udal Gobernuak Ilunbe saltzeko

**II.2.27. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre el comercio.**

“Josu Mirena Ruiz Martin, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, someto a la consideración del Pleno la siguiente MOCIÓN, sobre el Consejo Asesor de Comercio. Esta moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en la sesión del 11 de julio de 2016 ante la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

El 9 de noviembre de 2015 tuvo lugar la reunión del Consejo Asesor de Comercio, y en ese consejo no se ofreció ningún detalle sobre la ampliación de Garbera. Hace unos días, el Gobierno Municipal comunicó que pondría en

lehiaketa abian jarriko zuela jakinarazi zuen. Ilunben, Auzitegi Gorenaren epaia dela eta, metro karratu guztiak (35.000) komertzialak izan daitezke; ez lehen bezala, Jaurlaritzak 25.000 metro karratuko muga baitzuen.

marcha la licitación para la venta de Ilunbe. Como consecuencia de la sentencia del Tribunal Supremo, todos los metros cuadrados de Ilunbe (35.000) pueden ser comerciales; no como antes, dado que el Gobierno Vasco tenía establecido un límite de 25.000 metros cuadrados.

Bestalde, ekainaren bukaerarako Egia eta Amara Berriko merkataritza planak aurkeztuko zirela hitzeman zuen zinegotzi ordezkariak.

Por otra parte, el representante del Gobierno Municipal se comprometió a presentar los planes de comercio de Egia y Amara Berri para finales de junio.

Hainbat gai garrantzitsu baziren, beraz, Merkataritzako Aholku Kontseiluan lantzeko. Uztailaren 6an kontseiluak beste bilera bat egin zuen, baina deialdiaren gai ordenean ez zen gai hauetako bakar bat ere agertzen.

Por lo tanto, había varios temas de calado para tratar en el Consejo Asesor de Comercio. El 6 de julio de nuevo el consejo llevó a cabo otra reunión, pero en el orden del día de la convocatoria no aparecía ninguno de esos asuntos.

Merkataritzako Aholku Batzordearen bilera hartan, EH Bilduk Garberaren zabalkundea jarri zuen mahaigainean, eta eragileen iritzi orokorra, dudarik gabe, zabalkunde horren kontrakoa izan zen. Gai honetan hiri ereduaz ari gara, baina hala ere, Udal Gobernuak eztabaida ez izatea nahi du. Gizarte Kontseiluan ere ez da inongo eztabaidarik izan Garberaren zabalkundeaz, funtsezko gaia izanda ere.

En aquella reunión del Consejo Asesor de Comercio, EH Bildu puso sobre la mesa el asunto de la ampliación de Garbera, y la opinión general de las y de los agentes sociales, sin lugar a dudas, fue contraria a esa ampliación. En este asunto estamos debatiendo el modelo de ciudad, pero, de todos modos, el Gobierno municipal no desea que exista debate. En el Consejo Social tampoco ha habido debate alguno sobre la ampliación de Garbera, aún siendo un tema fundamental.

Udal Gobernuak, gardentasuna beti ahoan izan arren, Garberako hitzarmena eta eman beharreko pauso guztiak eman aurretik eztabaida (eragile guztiekin) bultzatu beharko luke. Horrela ez dela izan agerian da.

Aunque el Gobierno municipal siempre tenga en mientes el asunto de la transparencia, antes de sustanciar el convenio de Garbera y dar todos los pasos precisos, debería impulsar un debate (con la totalidad de los agentes). Es patente que no ha sido así.

Hori dela-eta, behean sinatzen duen zingotziak honako mozio hau aurkezten du:

Por todo lo anteriormente expuesto, el concejal que suscribe presenta la siguiente

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

MOZIOA

1.- Udalbatzak irmoki eskatzen dio Udal Gobernuari Garberaren zabalkundea Gizarte Kontseilura, puntu bakar bezala, eraman dezala eragileen arteko eztabaida eman dezan.

Donostian, 2016eko uztailaren 15ean

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

MOCIÓN

1.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que someta, como punto único, la ampliación de Garbera a la consideración del Consejo Social, para que se debata entre las y los agentes sociales.

En San Sebastián, a 15 de julio de 2016.

Josu Mirena Ruiz Martin,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Loïc Alejandro jaunak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Josu Ruiz Martín, D. Loïc Alejandro y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.28. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Donostia Kiroleko pertsonen plana ingurukoa.**

"Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi

**II.2.28. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre el plan de personas de Donostia Kirola.**

"Josu Mirena Ruiz, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98

Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, Kiroletako pertsonen plana dela-eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2016ko uztailaren 11ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN, relativa al Plan Estratégico de Personas de Donostia Kirola, para que sea tratada en el Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación realizada en la sesión del 11 de julio de 2016 en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Udal Gobernuak ekainaren 29an Kiroleko artezkaritza kontseiluan, sindikatuen onarpena gabe eta oposizioko talde politikoekin akordioak landu gabe, Pertsonen Plana onartu zuen.

El Gobierno Municipal, en el Consejo Rector de Deportes celebrado el 29 de junio, aprobó el Plan de Personas, sin contar con el respaldo de los sindicatos y sin haber elaborado ningún acuerdo con los grupos políticos de la oposición.

Bestalde, Giza Baliabideen zuzendariak, plana ontzat ematen duenak, Donostia Kirolean plaza du; beraz, interes partikularrak izan ditzake gai honetan. Gainera bere plaza aldatu egin da.

Por otra parte, la dirección de Recursos Humanos, que ha aprobado dicho plan, cuenta con un puesto de trabajo en Donostia Kirola, y, por lo tanto, puede tener intereses particulares en este asunto. Además, su plaza se ha modificado.

Azkenik, lanpostuen katalogoan, bi lanposturen artean funtzioak errepikatzen dira, eta Kontu-hartzailetzak ohartu egin du honetaz.

Por último, en el catálogo de puestos de trabajo se repiten las funciones entre dos puestos, error del que ha advertido el Interventor.

Hala eta guztiz ere, EAJk eta PSEk beren proposamena aurrera eraman dute.

De todas formas, tanto PNV como PSE sacaron adelante su propuesta.

Batzordean jasotako erantzunak negargarriak izan ziren. Erantzunean, udal taldeekin akordioa lortzeko ahalegina egin dela irakurri dugu, bilerarik egin ez den arren. Beste adibide bat: nahiz eta gobernuak giza baliabideen txostena ontzat eman zuen uztailaren 11n, artezkaritza kontseiluan guk egindako salaketari esker, giza baliabideen beste txosten bat jaso genuen, uztailaren 12an.

Las respuestas recibidas en la comisión fueron lamentables. En la respuesta hemos leído que se hizo el esfuerzo de conseguir en acuerdo con los grupos municipales, aunque no haya habido reuniones. Otro ejemplo: aunque el Gobierno dio por bueno el informe de Recursos Humanos del 11 de julio, a causa de la denuncia que realizamos en el Consejo Rector, recibimos otro informe de Recursos Humanos, fechado el 12 de julio.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Hau dela-eta, hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

MOZIOA

1- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Udalean eta udal patronatu eta erakundeetan organigrama aldaketak egin nahi dituenean, udal taldeekin eta sindikatuekin akordioak landu ditzala, onespen handiena izan dezaten.

2-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Udalean eta udal patronatu eta erakundeetan organigrama edota lanpostu aldaketak/balorazioak egin nahi dituenean, zuzendariek beren lanpostuaren aldaketan parte har ez dezatela.

3-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Donostia Kiroleko artezkaritza kontseilua dei dezala lanpostuen katalogoa aldatzeko; hain zuzen, lanpostuen arteko funtzioak errepika ez daitezen Idazkaritza Departamentutik eta kontu-hartzaileak eskatu duten bezala.

Donostian 2016eko uztailaren 15ean

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Es por ello por lo que el concejal que suscribe presenta la siguiente

MOCIÓN

1. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que cuando pretenda modificar el organigrama de los patronatos y organismos municipales, busque el acuerdo con los grupos y sindicatos municipales, para disponer del mayor de los consensos.

2. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que cuando pretenda modificar el organigrama o los puestos de trabajo y las valoraciones en los patronatos y organismos municipales las directoras y directores no tomen parte en las modificaciones que les atañen.

3. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que convoque al Consejo Rector de Donostia Kirolak, para modificar catalogo de puestos de trabajo; en concreto, para que no se repitan las funciones entre puestos de trabajo, como solicitan Secretaría e Intervención.

En San Sebastián, a 15 de julio de 2016

Josu Mirena Ruiz Martin,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak eta Juan Ramon Viles Mitxelena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Josu Ruiz Martín, D. José Luis Arrúe Pintó y D. Juan Ramón Viles Mitxelena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**28. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 28:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

**28. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 28:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

**28. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 28:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

--------------

**II.2.29. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Turismorako euskarrietan euskararen erabilera dela-eta.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko martxoaren 14an Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Urriaren 29an Udalbatzak onartu zuen Udal Gobernuari eskatzea berma zezala euskararen erabilera normalizatzeko bidean aurrera-urratsak emateari begira, eta indarrean dagoen "Donostiako Udal Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 5. Plangintzaldia (2013-2017)" delakoaren arau eta jarraibideen norabidea kontuan hartuz, 2016ko testuinguruan egiten diren informazio idatzietan, eta hizkuntza aniztasuna erabili behar denean -hau da, euskara, gaztelera eta beste kanpo hizkuntzak ere- euskara ez dela kaltetua izango.

Erabaki hori, data bistan, testuinguru jakin batean eman zen: 2016 hasteko gero eta denbora gutxiago falta zenean, euskara eta gaztelaniaren erabilerari dagozkion hizkuntza-irizpideen erabileran egoera desegokiak suertatu ziren hizkuntza gehiagoren artean erabiltzerakoan; zehazki turismoko panel batzuetan.

**II.2.29. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre el uso del euskera en los soportes para el turismo.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación substanciada ante la Comisión de Servicios a las Personas del 14 de marzo de 2016.

JUSTIFICACIÓN

El pleno del ayuntamiento en su sesión de 29 de octubre instó al Gobierno Municipal a garantizar la normalización del uso del euskera y en la línea de las normas y directrices contenidas en el 5º periodo de planificación (2013-2017) del Plan de Normalización del Uso del Euskera del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, en las informaciones escritas en torno a la Capitalidad Cultural de 2016, en situaciones de multilingüismo, donde se utilicen el euskera, el castellano y otras lenguas, el euskera no resulte perjudicado.

Dicha resolución, a la vista de la fecha, se produjo en un contexto determinado: faltaba poco para la llegada del 2016 y pudimos constatar la no aplicación de los criterios lingüísticos establecidos para la utilización del euskera y castellano junto a otras lenguas; concretamente, en algunos paneles de turismo.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Kontrol-mozioaren ondorioz, batetik, panelak aldarazi zituen Udal Gobernuak. Bestetik, kontrol-mozioaren eztabaidan zinegotzi ordezkariak gaiari heltzeko asmoa agertu zuenez, zailtasunak eta konplexutasunak aitorturik, talde honetatik eskua luzatu genuen, lan horretan laguntzeko asmoz; beti ere, iniziatiba gobernuari dagokiola argi izanda. Eleaniztasunean erabilera egokiak egiteko zailtasuna, eta zailtasun hori gainditzeko hausnarketak egin beharra eta soluziobideak aurkitzeko urgentzia konpartitua, Udal Gobernuak martxoan Euskararen Kontseilu Sektorialaren Batzorde Iraunkorrean, gaia jorratzeko lan talde proposamena egin zuen, Kontseiluak egoki ikusi eta dagoeneko taldea elkartu eta lanean jarri da. Lehen bilkuran zailtasun handienak turismo inguruan zirela agertu zen, baina haiek gainditzeko prestutasuna eta abiatzeko zorua egun indarrean ditugun arau eta irizpideak izango zirela adierazi zen.

Como consecuencia de la moción, por un lado, el Gobierno municipal hizo sustituir los paneles. Por otro lado, como la concejalía delegada manifestó su intención de ponerse manos a la tarea, reconociendo las dificultades y complejidades, desde este grupo le extendimos la mano, con intención de colaborar en esa tarea; teniendo siempre muy claro que la iniciativa corresponde siempre al gobierno. Compartiendo la dificultad de realizar usos adecuados en situaciones de multilingüismo, la necesidad de reflexionar para superar dichas dificultades y la urgencia de encontrar soluciones, el Gobierno municipal, en marzo, en la Comisión Permanente del Consejo Sectorial del Euskera, realizó una propuesta de analizar la creación de un grupo de trabajo, algo que el Consejo consideró adecuado, y, actualmente, el grupo de trabajo ya se ha reunido y está trabajando. En la primera reunión se puso de manifiesto que las mayores dificultades existían en el ámbito del turismo, pero se manifestó la disposición a superarlas y poner como suelo desde el que encaminarse las normas y criterios actualmente en vigor.

Aldi berean, hilabete hauetan Udal Gobernuak ekimen ugari jarri ditu abian hizkuntza irizpideak Udaleko sail eta erakundeetan ezagutarazteko, bide elektroniko zein paperezkoak erabilita. Berriki, ordea, kexu potoloa jaso dugu: arestian aipatu diren paneletan baztertu zen mapa berbera (Udaleko hizkuntza irizpideak betetzen ez zituelako), Turismoko web orriaren bidez banatzen da. Web orriak, noski, hainbat hizkuntza hautatzeko aukera badu: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, japoniera eta mapak ere hainbat hizkuntzatan azalduko dira, hizkuntzaren hautuaren arabera. Urte hasieran Udal Gobernuak zuzendu zuen mapa egina

Simultáneamente, a lo largo de estos meses el Gobierno municipal ha puesto en marcha numerosas iniciativas para difundir en los departamentos y organismos municipales los criterios lingüísticos, mediante soporte electrónico y papel. Hace poco, sin embargo, hemos recibido una queja trascendental: el mismo mapa que se rechazó en los paneles anteriormente mencionados (por no cumplir los criterios lingüísticos en vigor en el Ayuntamiento), se distribuye mediante la hoja Web de Turismo. La hoja Web, por supuesto, ofrece la posibilidad de elegir entre diversas lenguas: euskera, castellano, francés, inglés, japonés, y también los mapas aparecen en

dagoenez gero, ulertezina da oraindik ere web orrian eskura ez egotea.

diversas lenguas, en función de la opción elegida. Cono el mapa impulsado por el Gobierno municipal está realizado a principios de año, resulta ininteligible que no esté todavía disponible en la hoja Web.

Horiek horrela, hauxe da gure MOZIOA:

Por lo expuesto, presentamos la siguiente MOCIÓN

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Udalbatzak urriaren 29an aho batez onartu zuen kontrol-mozioa betetzeko, eta, ondorioz, bermatuko duela “informazio idatzietan, eta hizkuntza aniztasuna erabili behar denean (hau da, euskara, gaztelera eta beste kanpo hizkuntzak ere) euskara ez dela kaltetua izango”.

1. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que cumpla la moción de control aprobada por unanimidad por el Ayuntamiento Pleno y a que, por tanto, garantice “en los textos informativos, y en situaciones en las que se debe recurrir al multilingüismo (es decir, al euskera, al castellano y a otras lenguas), el euskera no resulte perjudicado”.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ziurtatzeko sistema digitalek ematen dituzten erraztasunak profitatuz, web orrien bidez eskuratzen diren informazio idatziak, egin den hizkuntza-hautuaren araberakoak izango direla.

2. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que, aprovechando las facilidades que ofrecen los sistemas digitales, garantice que las informaciones escritas que se ofrecen en las hojas Web lo sean en función de la opción lingüística por la que se haya optado.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, sinatua dagoen lankidetza-hitzarmena baliatuta, Donostia Turismo SA sozietateko euskararen erabilera normalizatzeko Plana garatu eta jarraipena egiteko, hizkuntza-irizpideak bermatzeko neurriak hartuz.

3. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que, utilizando el convenio de colaboración suscrito, se desarrolle y se realice el seguimiento del Plan de Normalización del uso del euskera en la sociedad anónima Donostia Turismo, y a que se adopten medidas para garantizar los criterios lingüísticos.

Donostian, 2016ko uztailaren 15ean

En San Sebastián, a 15 de julio de 2016

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Maria Luisa Garcia Gurruchaga andreak eta Miren Azkarate Villar andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, Dª. María Luisa García Gurruchaga y Dª. Miren Azkarate Villar, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**II.2.30. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Ondare historiko-artistikoaren trataeraren ingurukoa.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko apirilaren 18an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko ekainean Eduardo Chillida pasealekua itxi behar izan zen segurtasun arrazoiak tarteko. Berri latza zen, Chillidaren obraz gain, Luis Peña Ganchegui arkitektoaren espazioa ere nazioarteko erreferentzi garrantzitsua delako, eta bi lanen baturaren balorea bere ingurune naturalean gozatzea baino ez dagoelako.

**II.2.30. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre el tratamiento del patrimonio histórico-artístico en caso de obras.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público el 18 de abril de 2016.

JUSTIFICACIÓN

En junio de 2015, tuvo que cerrarse el paseo de Eduardo Chillida por razones de seguridad. La decisión revestía bastante gravedad porque, además de la obra de Chillida, el espacio en el que ésta se encuentra, creado por el arquitecto Luis Peña Ganchegui, también constituye una referencia internacional importante. Y porque el valor que resulta de la unión de estas dos

obras sólo puede disfrutarse en su entorno natural.

Zonaldea itxita zegoen bitartean "Haizearen Orrazia" obra eta pasealekuko ondarearen zabalpenari nola egingo zitzaion aurre jakin nahian, hala nola kontserbazioari buruz informazio zuzena jasotzeko asmoz, agerraldia eskatu zitzaion Kulturako zinegotzi ordezkariari otsailean. Eskaeraren helburua zen Eduardo Chillida pasealekua itxita zegoen bitartean, Chillidaren 'Haizearen Orrazia" obrari eta Luis Peña Ganchegui arkitektoaren espazioari dagokien trataeraz informa zezan, eta ondarearen ikuspuntutik obrari zer nolako trataera emango zitzaion azaltzea. Halaxe egin zuen joan den otsailaren 15ean, Kulturako zinegotzi ordezkariak Gune Publikoen batzordean.

Para saber cómo se haría frente a la difusión de la obra "Peine de los Vientos" y del patrimonio del paseo mientras la zona estuviera cerrada, y para conseguir información directa sobre su conservación, se solicitó la comparecencia de la concejala delegada de Cultura. El objetivo de esta solicitud era que informara de qué tratamiento correspondía dar a la obra "Peine de los Vientos" de Chillida y al espacio creado por el arquitecto Luis Peña Ganchegui mientras el paseo de Eduardo Chillida estuviera cerrado, así como que explicara también el tratamiento que se les iba a dar desde el punto de vista del patrimonio. Y esto es lo que hizo la concejala delegada de Cultura el pasado 15 de febrero, en la Comisión de Espacio Público.

Agerraldian, beraz, konfirmatu zitzaigun pasealekua gutxienez abuztura arte itxita egongo zela, bai eta mendiko lanak konpontzeko epeak ematea zaila izango zela ere, eguraldiaren arabera aldaketak suerta zitezkeelako. Agerraldian ere azaldu zitzaigun lehendik zegoen kartela bera jartzeko asmoa zuela Udal Gobernuak. Talde honek erabaki hori berrikusteko iradokizuna egin zuen. Finean testuingurua kontuan izateko aholkua luzatu genuen: alegia, denboraren luzapena, Chillida-leku itxita, "Gaur" erakusketak piztuko zuen interesa, eta abar, eta hori guztia 2016an bertan. Tamainako arte-lanek tamainako kartela eta informazioa behar zituztelakoan geunden eta gaude. Horregatik apirileko batzordean, aurreko elkarrizketek inongo eraginik izan ez zutenez, interpelatu genuen ea Eduardo Chillida pasealekua itxita zegoen bitartean, epealdi luzea izango zelakoan, eta bertan ziren arte-obrek tamainako

En la citada comparecencia se nos confirmó que el paseo estaría cerrado, al menos, hasta agosto y que sería difícil concretar los plazos de finalización de las obras del monte, puesto podría haber cambios en función de la climatología. También se nos dijo en ese momento que el Gobierno Municipal tenía la intención de volver a colocar el cartel que estaba antes en ese lugar. Nuestro grupo sugirió que esta decisión se revisara. En definitiva, hicimos la recomendación de que se tuviera en cuenta el contexto: es decir, la prolongación en el tiempo, el hecho de que Chillida-leku estuviera cerrado, el interés que despertaría la exposición "Gaur", etc., y todo ello en el mismo 2016. Pensábamos entonces, y lo seguimos haciendo ahora, que unas obras de arte de semejante importancia merecen un cartel y una información acordes a ella. Por ello, viendo que las conversaciones anteriores no tuvieron ningún efecto, en la comisión de

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

interbentzioa merezi zutelakoan, ez ote zegoen obraren aurrekontuan partida egoki bat bertako ondarearen berri emateko, bertan zer egiten ari zen eta zergatik informatzeko, eta “in situ” ikusteko aukera egongo ez bazen ere, Peña Gancheguiren espazioa zein Chillidaren obra balorean jartzeko. Alkateak berak batzordean errekonozitu zuen aurrekontu handiaren baitan kartelak suposa zezakeena asumitzeko modua egongo zela. Baina konponketa-lanak bukatzekotan daude, eta oraindik ere, bertan dagoen kartel bakarra da “es obligatorio seguir todas las normas de seguridad” dioena. Izan ere obrako hesiturara ailegatuta, hiriko harrobiko sarrera ematen du. Eta hori guztia konponketa-obraren ardura Udalarena berarena dela.

abril presentamos una interpelación para saber si –mientras el paseo de Eduardo Chillida estuviera cerrado, previendo que el plazo para la finalización de las obras sería largo y considerando que las obras de arte allí situadas merecían una intervención importante– no había en el presupuesto de la obra una partida adecuada para dar cuenta del patrimonio de la zona, para informar sobre qué se estaba haciendo allí y por qué, y para poner en valor el espacio de Peña Ganchegui y la obra de Chillida, aunque no se pudieran ver “in situ”. El propio alcalde reconoció en la comisión que, en un presupuesto tan grande, habría forma de asumir el gasto que supondría el cartel. Pero las obras de reparación están a punto de finalizar y el único cartel que se puede ver allí es el que dice “Es obligatorio seguir todas las normas de seguridad”. La verdad es que, cuando llegamos al vallado de la obra, da la impresión de que nos encontramos en la entrada de una cantera. Y todo ello siendo del Ayuntamiento la responsabilidad de la obra de reparación

Ganchegui eta Chillidaren obrak ikusteko parada izango omen dugu aurki, abuztuaren atarian gaudenez gero, mendiko luiziak kontenitzeko lanak bukatzear daudelakoan baina, paseoa urtebete itxita izan den bitartean obra kulturalari eman zaion trataera eskasa dela-eta, aurrerantzean horrelakorik ezin dela gertatu iritzita gaude.

Parece que pronto tendremos la oportunidad de ver las obras de Ganchegui y Chillida, puesto que estamos ya casi en agosto y se prevé que los trabajos de contención de los desprendimientos del monte finalizarán en breve, pero, teniendo en cuenta el deficiente tratamiento que se ha dado a esta obra cultural durante el año en que el paseo ha estado cerrado, consideramos que esto no puede volver a suceder en el futuro.

Egun aintzakotzat hartzen den ondare kulturalaren inguruan interbentzio inportantea eginez gero, konponketa-lanek beraiek eskatzen dituzten neurriak aurreikusi eta hartzearekin batera (hesitu edo saretzea, pasabideak moztea, arriskuak ohartzeko

En la actualidad, cuando se lleva a cabo una intervención de envergadura respecto al patrimonio cultural considerado de importancia, además de prever y adoptar las medidas exigidas por las propias obras de reparación (poner vallas y verjas, cortar el paso, colocar

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

kartelak jartzea, eta abar), ondarea balorean jartzeko elementu osagarriak aurreikusi eta erabiltzen dira: argazkiak, kartel bereziak, tamaina naturalean edo tamaina handi egokian, beti ere ondare kulturala, historikoa dela, artekoa dela,... antzemateko edo/eta gozatu ahal izateko; hesi bereziak erabiltzea, ingurunean ibilera segurua egitea eragotzi gabe, ikusmirak erraztea,... Konponketa mota zein ingurunea eta arte-obrak kontuan hartuta, irtenbide anitz bezain desberdin daude baina edozein kasutan ondarearen hedapenari begirako interbentzioa, konponketa-obraren beraren parte bat dela ulertuta, plangintzaren beraren beste zati bat, alegia, guztia bat eginik eta egoerari dagokion sentsibilitateaz.

carteles que adviertan de los riesgos, etc.), también se prevén y utilizan elementos auxiliares para poner en valor ese patrimonio: fotografías, carteles especiales de tamaño natural o de un tamaño grande y adecuado…, con el objetivo de que se pueda apreciar que se trata de un patrimonio cultural, histórico, artístico… y para que se pueda disfrutar de él, si la situación lo permite. Se colocan vallados especiales, sin impedir por ello el paso seguro por el entorno, se facilitan las vistas… Según el tipo de reparación, el entorno y la obra de arte de que se trate, habrá numerosas y diferentes soluciones, pero, en cualquier caso, se considera que la intervención dirigida a la difusión del patrimonio es una parte de la obra de reparación, es decir, un elemento de la propia planificación, siendo todo un conjunto que debe tratarse con la sensibilidad que corresponde a cada situación concreta.

Horiek horrela, hauxe da aurkeztutako

Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA:

MOCIÓN DE CONTROL:

Udalbatzak honako hau eskatzen dio hertsiki Udal Gobernuari:

El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a:

1, - Balore historikoa edo/eta artistikoa duten ingurunetan edo balore historikoa edo/eta artistikoa duten obren inguruan, Udalak konponketa-lanak egin behar dituenean, ikuspegi kulturaletik ere egoerari dagozkion neurriak har ditzala, ondarea balorean jartzeko eta informatzeko, hala nola bere gozamena errazteko elementu egokiak erabiltzeko

1.- Que, cuando tenga que llevar a cabo obras de reparación en entornos que tienen un valor histórico y/o artístico y en torno a obras que también tienen ese valor, el Ayuntamiento adopte las medidas adecuadas a la situación desde el punto de vista cultural, con el objetivo de poner en valor el patrimonio y de informar sobre él, así como para utilizar elementos apropiados que faciliten el disfrute de este patrimonio.

2, - Balore historikoa edo/eta artistikoa duten ingurunetan edo balore historikoa edo/eta

2.- Que, cuando se le solicitan licencias para llevar a cabo obras de reparación en entornos

artistikoa duten obren inguruan, Udalari konponketa-lanak egiteko lizentzia eskatzen zaionean, gomendioak eman ditzala obra egingo duen pertsona fisiko edo juridikoak ikuspegi kulturaletik ere egoerari dagozkion neurriak har ditzala, ondarea balorean jartzeko eta informatzeko, hala nola bere gozamena errazteko elementu egokiak erabiltzeko.

que tienen un valor histórico y/o artístico y en torno a obras que también tienen ese valor, el Ayuntamiento asesore a las personas físicas o jurídicas que van a llevar a cabo la obra, para que adopten las medidas adecuadas a la situación teniendo en cuenta también el punto de vista cultural, con el objetivo de poner en valor el patrimonio y de informar sobre él, así como para utilizar elementos apropiados que faciliten el disfrute de este patrimonio.

Donostian, 2016ko uztailaren 15ean

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

San Sebastián, 15 de julio de 2016

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Loïc Alejandro jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D. Loïc Alejandro y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**30. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 30:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**30. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 30:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**

**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.31. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Garberaren hedapenari buruzko hitzarmenari egindako alegazioen idatzia hitzarmena behin betiko onetsi aurretik espedientean sartu ez izanari buruzkoa.**

“Ricardo Burutaran Ferrék, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluarekin bat etorriz, honako KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran jorratu dadin. Mozio horren bidez, adierazten da Garberaren hedapenari buruzko hirigintza hitzarmenari egindako alegazioen idatzia ez dela espedientean sartu hitzarmena behin betiko onetsi aurretik, eta ondorioz, epe horretan erantzunik ere ez zaiela eman. Mozioa joan den uztailaren 11ko batzordean oinarritutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den otsailaren 16ko Gobernu Batzordeak erabaki zuen “jendaurrean jartzea, 20 eguneko epean, Unibail Rodamco Retail Spain SLUren, Altadena Invest SLren eta Udalaren beraren artean sinatu beharreko IN.09 GARBERA hirigintza eremuari buruzko hitzarmen proposamena”

Joan den otsailaren 23an, hirigintza hitzarmenaren proposamena jendaurrean

**II.2.31. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre la falta de inclusión en el expediente, antes de la aprobación definitiva, de un escrito de alegaciones al convenio sobre la ampliación de Garbera.**

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno sobre la falta de inclusión en el expediente, antes de la aprobación definitiva, y consecuentemente también de contestación en dicho período, de un escrito de alegaciones al Convenio Urbanístico sobre la ampliación de Garbera. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en comisión el pasado 11 de julio.

JUSTIFICACIÓN

La Junta de Gobierno del pasado 16 de febrero acordó “exponer al público, durante el plazo de 20 días, la propuesta de Convenio referido al ámbito urbanístico IN.09 GARBERA” a suscribir entre Unibail Rodamco Retail Spain S.L.U., Altadena Invest S.L. y el propio Ayuntamiento.

El pasado 23 de febrero se publicó en el BOG el edicto de exposición al público de la

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

jartzeko iragarkia argitaratu zen GAOn.

Emandako epearen barruan, hainbat alegazio aurkeztu ziren. Hala ere, guztiak ez ziren espedientean sartu. Oraintsu jakin dugunez, horietako baten ordezkariaren hitzetan, “Donostia San Sebastián Shops”ek garaiz eta behar bezala aurkeztutako alegazioak ez ziren espedientean sartu, ez ziren erantzun, eta udal langile teknikoek ez zituzten baloratu, Gobernu Batzordeak hitzarmena behin betiko onetsi aurretik.

Badakigu Udal Gobernuak borondate irmoa duela Garberaren hedapenarekin aurrera jarraitzeko, baina ulertzen dugu horregatik ezin dela murriztu herritarrek beharrezkotzat jotzen dutena alegatu ahal izateko duten eskumena. Kasu honetan, gainera, merkataritzarako 25.000 m2-ko azaleraren hedapen horren eragina jasango duen hiri merkataritzako plataforma baten alegazio idatzi bat da.

Oso deigarria eta larria iruditzen zaigu aurkeztu diren alegazio batzuk espedientean sartu ez izana. Jarduteko ohi ez bezalako modu horren arrazoiak ezagutzen ez ditugunez, Udal Gobernuari arrazoien berri emateko eskatzen diogu. Azalpenak ez ziren nahikoak izan, inondik inora ere, eta esan zuten gauza bakarra izan zen, funtsean, “ez zirela Hirigintza Iraunkorreko Sailera heldu”.

Gure ustez, gai hori ondo argitu behar da, horrelako gertakari larririk berriro gerta ez dadin; izan ere, garrantzia kentzen diote herritarren partaidetza eta alegazioak aurkezteko prozesuari, eta administrazio egintzen legezkotasuna baliogabetu dezakete.

propuesta del Convenio Urbanístico.

Dentro del plazo conferido se presentaron distintas alegaciones. Sin embargo, no todas ellas fueron incorporadas al expediente. Según hemos podido conocer recientemente, directamente de una de sus representantes, las alegaciones presentadas en tiempo y forma por “Donostia San Sebastián Shops” no fueron ni incorporadas al expediente, ni constestadas, ni valoradas por el personal técnico municipal, de forma previa, a la aprobación definitiva del Convenio por la Junta de Gobierno.

Sabemos de la voluntad firme del Gobierno Municipal en seguir adelante con la ampliación de Garbera; pero entendemos que la misma no pueda suponer una merma de las facultades de la ciudadanía en poder alegar lo que estimen necesario; en el presente caso, además estamos hablando de un escrito de alegaciones de una plataforma de comercio urbano, que se verá afectada por la materialización de una ampliación de superficie de 25.000 m2 de comercial.

Nos parece un dato enormemente llamativo y grave que unas alegaciones presentadas no se incorporen al expediente. Ante el desconocimiento de los motivos de éste insólito proceder, interpelamos al Gobierno Municipal sobre las razones del mismo. Las explicaciones fueron a todas luces insuficientes, limitándose a decir, básicamente, que “no habían llegado al Departamento de Urbanismo Sostenible”.

Entendemos preciso que dicha cuestión debe quedar aclarada y depurada suficientemente para evitar que se puedan repetir hechos sumamente graves, que menoscaban la participación ciudadana y el proceso de presentación de alegaciones y que incluso

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

pueden viciar la legalidad de los propios actos administrativos.

Hori guztia kontuan hartuta, sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkeztu du:

A la vista de todo ello, el concejal que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio hartu behar diren neurriak berehala hartzeko, batetik, herritarrek jendaurrean edo entzunaldi tramitean dauden dokumentuei aurkezten dizkieten alegazio guztiak dagozkien espedienteetan sartzeko, eta, bestetik, organo eskudunak horiek onesteko proposamena egin aurretik zerbitzu teknikoek aztertzeko.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a tomar, con carácter inmediato, las medidas necesarias para que todas las alegaciones que se puedan formular por la ciudadanía a los documentos en exposición pública o en trámite de audiencia sean incorporadas a los expedientes respectivos y analizadas por los servicios técnicos de forma previa a la propuesta de aprobación de las mismas por el órgano competente.

Donostia, 2016ko uztailaren 15a.

En Donostia, a 15 de julio de 2016

Sin.: Ricardo Burutaran Ferré,
EH BILDU udal taldeko zinegotzia”.

Fdo.: Ricardo Burutaran Ferré,
Concejal del Grupo Municipal EH BILDU”.

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Ricardo Burutarán Ferré y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

---------------

ETA BESTELAKO AZTERGAIRIK EZ DENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO GAUEKO HAMARRETAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:

Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS VEINTIDÓS HORAS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:

LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:

IDAZKARIA: / EL SECRETARIO:

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04